

**Graduado o Graduada en Maestro en Educación Infantil  
*Haur Hezkuntzako Irakasletzako Gradua***

**Trabajo Fin de Grado  
*Gradu Bukaerako Lana***

**ADINGABEEN FAMILIA BARRUKO TRATU  
TXARREN DETEKZIO GOIZTIARRA  
MARRAZKI ANALISIAREN BITARTEZ**

**Ikaslea: Anne Garmendia Zubikoa**

Tutor/Tutorea: Fernando Trebol Unzue

Departamento/Saila: Osasun zientziak

**Campo/Arloa: Hezkuntza**

**Hilabetea, urtea: 2023ko maiatza**

## LABURPENA

Haur eta nerabeek familia barnean pairatzen dituzten tratu txarraz ez da aunitz solasten eta zaila egiten zaigu sinistea horrelako egoerak gure hurbilean ematen direla. Horrelako tratuak, larritasun handiko egoerak dira. Egoera hauei aurre egiteko eta haurrari kalitatezko babesa eta zaintza eskaintzeko, esku-hartzea martxan jarri behar da, detekzio goiztiarra eman ahal izateko.

Gradu amaierako lan honetan ***gazteek familia barruan bizitzen dituzten tratu txarren detekzio goiztiarra*** eta kasu hauetan jarraitu beharreko **protokolorik** dagoen ezagutu nahi da eta eskumenerako protokoloaren proposamena diseinatu eta landu nahi da.

Lan honek bi atal nagusi izango ditu, alde batetik, marko teorikoa, bertan adingabeek familia barruan pairatzen dituzten tratu txarrak, hauen detekzioa eta esku-hartzea landuko da. Honetaz gain, detekzio goiztiarra emateko tresna eta teknikak ezagutuko dira, bereziki, marrazkien analisia eta esku-hartzea emateko Nafarroako Gobernuak daukan protokoloari AMIA/DAFO ezarri diot. Bertzetik, marko praktikoa dago, honetan, Baztanen dauden departamentuen arteko lan sarea aztertu, detekzio goiztiarra emateko baliabideak eta protokolo bat sortu nahi da, gerora ikastetxeetan erabilgarria izan daitekeena.

*Hitz gakoak:* tratu txarrak; detekzio goiztiarra; marrazkien analisia; estandarizazioa; protokoloa.

## RESUMEN

El maltrato que sufren los niños, niñas y adolescentes dentro de la familia no es un tema del que se hable con frecuencia y nos cuesta creer que estas situaciones se dan en nuestro entorno. Este tipo de tratos son situaciones de gran gravedad. Para hacer frente a estas situaciones y ofrecer al niño una protección y cuidado de calidad, es necesario poner en marcha una intervención que permita una detección precoz.

El objetivo de este trabajo fin de grado es conocer la detección precoz del maltrato en el ámbito familiar y la existencia de protocolos a seguir en estos casos, así como diseñar y elaborar una propuesta de protocolo para la competencia.

Este trabajo consta de dos apartados principales, por un lado un marco teórico en el que se abordará la problemática del maltrato intrafamiliar, la detección y la intervención en menores. Además, se conocerán las herramientas y técnicas para la detección precoz, en particular, el análisis del dibujo y el protocolo del Gobierno de Navarra para la intervención, al cual le he establecido el análisis DAFO.

Por otra parte, existe un marco práctico en el que se pretende analizar la red de trabajo interdepartamental existente en el Valle de Baztan, crear recursos para la detección precoz y un protocolo que posteriormente puede ser de utilidad en los centros educativos.

*Palabras clave:* maltrato, detección precoz, análisis de dibujos, estandarización, protocolo.

## **ABSTRACT**

The abuse suffered by children and adolescents within the family is not a subject that is often talked about and we find it difficult to believe that these situations occur in our environment. Such situations are very serious. To cope with these situations and provide the child with quality protection and care, it is necessary to implement an intervention that allows early detection.

The objective of this study is to know the early detection of abuse in the family environment and the existence of protocols to follow in these cases, as well as to design and elaborate a proposed protocol for the competence.

This work will consist, on the one hand, of a theoretical framework in which the treatment of family abuse, the detection and intervention of minors will be addressed. Además, se conocerán las herramientas y técnicas de detección precoz, en particular el análisis del dibujo y el protocolo de intervención del Gobierno de Navarra, al que he establecido el análisis SWOT. On the other hand, there is a practical framework that aims to analyze the interdepartmental work network existing in the Baztan Valley, to create early detection resources and a protocol that can be useful in schools.

*Keywords:* abuse, early detection, drawings analysis, standardization, protocol.





**AURKIBIDEA**

<b>SARRERA</b>	<b>7</b>
<b>INTRODUCCIÓN</b>	<b>8</b>
<b>1. PROIEKTUAREN HELBURUAK, GALDERAK ETA HIPOTESIAK</b>	<b>9</b>
<b>1.1. Helburuak</b>	<b>9</b>
<b>1.2. Galderak</b>	<b>11</b>
<b>1.3. Hipotesia</b>	<b>12</b>
<b>1. OBJETIVOS, PREGUNTAS E HIPÓTESIS DEL PROYECTO</b>	<b>13</b>
<b>1.1. Objetivos</b>	<b>13</b>
<b>1.2. Preguntas</b>	<b>15</b>
<b>1.3. Hipótesis</b>	<b>16</b>
<b>2. AUKERATUTAKO GAIAREN JUSTIFIKAZIOA</b>	<b>17</b>
<b>2. JUSTIFICACIÓN DEL TEMA ELEGIDO</b>	<b>17</b>
<b>3. MARKO TEORIKOA</b>	<b>18</b>
<b>3.1 Tratu txarren inguruko mitoak</b>	<b>18</b>
<b>3.2 Tratu txarren azalpena</b>	<b>18</b>
3.2.1 Tratu txarren definizioa	18
3.2.2 Mundu mailako, Espainiar Estatuko eta Nafarroako tratu txarren datuak	20
3.2.2.1 Mundu maila	20
3.2.2.2 Espaina maila	22
3.2.2.3 Nafarroa maila	26
3.2.3 Tratu txarren detekzio goiztiarra	28
3.2.3.1 Arrisku faktoreak	29
3.2.3.2 Tratu txarren agerpenaren adierazleak	31
3.2.4 Marrazkien analisisa detekzio tresna gisa	33
3.2.5 Hezkuntza arloko esku-hartze protokoloa	48
3.2.5.1 Nola detektatu babesgabetasun egoera	49
3.2.5.2. Protokoloaren balorazioa (AMIA / DAFO)	55
<b>3.3. Adituei egindako galdetegia eta emaitzak</b>	<b>58</b>

3.3.1. Galdetegiaren lehen atala. Adituek gaiarekiko daukaten ezagutza	58
3.3.2. Galdetegiaren bigarren atala. Baztango departamentuen lan egiteko modua	68
<b>4. NIRE PROTOKOLOAREN PROPOSAMENA</b>	<b>71</b>
<b>4.1. Protokoloa</b>	<b>71</b>
4.1.1. Protokoloaren atalak	71
<b>4.2 Noiz aktibatu protokoloa</b>	<b>75</b>
4.2.1 Kurtso hasieran	75
4.2.2 Egoera bat gertatzen denean edo adierazle batzuk antzeman direnean	75
4.2.3 Jarraipena epealdi bat geroago	75
<b>4.3 Identifikazioa eta eskumena</b>	<b>75</b>
4.3.1 Tratu txarren identifikaziorako aurrezagutzak	76
4.3.2 Eskumena abiatzeko prozedura	76
4.3.2.1 Susmo egoera denean	76
4.3.2.2 Errebelazio egoera denean	77
4.3.3 Babesgabetasun-gradienteak	79
<b>CONCLUSIONES</b>	<b>80</b>
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	<b>84</b>
<b>ERANSKINAK</b>	<b>89</b>
1. Eranskina. Espainiar Estatuko datuak (12-16 or.)	89
2. Eranskina. Nafarroako datuak (16 or.)	95
3. Eranskina. Adituei egindako galdetegia eta emaitzak (54-67 or.)	96
3.1 Eranskina. Lehen atala. Adituek gaiarekiko daukaten ezagutza	96
3.2 Eranskina. Bigarren atala. Baztango departamentuen lan egiteko modua	105
4. Eranskina. Protokoloa	109

## SARRERA

Haurrek familia barnean bizitzen dituzten tratu txarrak gustukoa ez den eta gure barruak mugiarazten diguten gai horietako bat da. Gai honetaz ez da behar bezain bertze solasten eta, hitz egiten badugu, uste dugu gure herrialdean, eskualdean ez direla horrelako kasurik ematen, edo bertze ainbertze uste faltsu, adibidez, maila sozioekonomiko baxuko familietan ematen dela, gurasoak alkohol eta droga kontsumo handiak dituztela, e.a.; baina hori ez da horrela. Gogorra egiten zaigu pentsatzea gure inguruan horrelako egoerak ematen direla. Zaila da sinistea hori errealitate bat dela eta gure hurbileko lagun batek txikitan tratu txarrak pairatu zituela, gure familiako kideren batek abusuak jaso izan dituela edo gure ikasleek horrelako egoera bortitzak bizitzen ari dituela pentsatzea ere.

Arazoa guk uste baino larriagoa da, haur eta gazte aunitzek bizitzen dituzte horrelako egoerak. Hori gutxi balitz, egoera hauek larritu egiten dira, gizartean gaiarekiko ezagutza eskasa dagoelako, baita egoerari aurre egiteko beldurra. Egoera hauen detekzio goiztiarra eman dadin, gizarteko pertsona orok gaiarekiko oinarrizko ezagutzak izan behar ditu, baina bereziki, haurrekin lan egiten eta denbora igarotzen duten edozein pertsona eta profesionalak, hauek horrelako egoerak detektatzeko toki esanguratsuan baitaude.

Beraz, egoera hauei aurre egiteko, tratu txarren inguruko infomazioa, ezagutza horiek lan honetan jaso dira, hala nola, zer tratu txar motak dauden, zeintzuk diren adierazleak, baita arrisku faktoreak ere. Bertzetik, detekzio unean gure lana eta jokabidea zein den ezagutzea ere ezinbertzekoa dela jakinarazi da, hau da, horrelako egoeren aurrean gure esku-hartzea zein den ezagutu behar dugula, bai irakasle bezala, bai herritar, bai bertze edozein profesional bezala.

Gradu amaierako lan honetan, marko teorikoaren atalean aurretik aipatutako ezagutza guzti horiek garatu eta landu dira, tratu txarren inguruko oinarrizko ezagutzak sakondu eta eskuratuko dira. Bertzetik, ikastetxeetatik kasu hauen aurrean izan behar den esku-hartzea, protokoloa ezagutu nahi da eta honen porposamena diseinatu eta landu, baliabide erabilgarria izan dadin ikastetxeetan erabiltzeko. Lan honetan egiten den porposamenean, alde batetik, gaiaren inguruko informazioa aurkituko da bai tratu txarrena, baita marrazkien analisiarena eta baliabide honen erabilgarritasuna. Bertze aldetik, ikastetxean jarraitu beharreko esku-hartzea eta aholkuak, baita bertze baliabide batzuk, irakasleen ezagutzak sakontzeko eta ikasleekin lantzeko aproposak izan daitezkeenak. Aipatu beharra da, lan honetan zehar Baztango euskalkiari dagokion hizketa eta egitura gramatikala erabili da.

## INTRODUCCIÓN

El maltrato que los niños y niñas viven dentro de su entorno familiar, es uno de esos temas que mueve nuestro interior. No es un tema del que se hable lo suficiente y, si lo hacemos, creemos que en nuestro país o comarca no se dan estos casos, u otra falsas creencias, tales como que estos caso solo se dan en familias de bajo nivel socioeconómico, que los padres tienen grandes problemas con el consumos de alcohol y drogas, etc.; pero esto no es así. Nos resulta duro pensar que en nuestro entorno se dan estas situaciones. Es difícil creer que esto es una realidad y que una persona cercana a nosotras ha podido sufrir malos tratos en su infancia, que algún miembro de nuestra familia haya sufrido abusos o que nuestros alumnos y alumnas estén viviendo situaciones tan violentas.

El problema es más grave de lo que pensamos, son muchos los niños, niñas y jóvenes que viven estas situaciones. Por si fuera poco, estas situaciones se agravan por el escaso conocimiento social del tema y por el miedo a afrontar la situación. La detección precoz de estas situaciones requiere que toda persona de la sociedad posea unos conocimientos básicos sobre el tema, pero especialmente cualquier persona y profesional que trabaja y pasa el tiempo con los niños y niñas, puesto que están en un lugar significativo para detectar estas situaciones.

Para hacer frente a estas situaciones, en este trabajo, con el objetivo de conseguir ciertos conocimientos en cuanto a los malos tratos intrafamiliares, se ha recogido la información necesaria tales como los tipos de maltrato existentes, los indicadores y los factores de riesgo. Por otra parte, es necesario y primordial conocer nuestra intervención ante estas situaciones, tanto como docente, como ciudadano o como cualquier otro profesional.

En este trabajo de fin de grado se han desarrollado y trabajado todos los conocimientos mencionados anteriormente en el apartado del marco teórico, profundizando y adquiriendo los conocimientos básicos sobre el maltrato. Por otra parte, se pretende conocer el protocolo y diseñar y elaborar su propuesta para que sea un recurso útil para su utilización en los centros educativos. En la propuesta que se realiza en este trabajo, por un lado, se encuentra información sobre el tema, tanto del maltrato como del análisis de los dibujos y la utilidad de este recurso. Por otra parte, la intervención y el asesoramiento a seguir en el centro, así como otros recursos que sirvan para profundizar en los conocimientos del profesorado y trabajarlos con el alumnado. Cabe señalar que a lo largo de este trabajo se ha utilizado el habla y la estructura gramatical correspondiente al dialecto de Baztan.

## 1. PROIEKTUAREN HELBURUAK, GALDERAK ETA HIPOTESIAK

Proiektu honetan, helburu nagusi gisa, *hautzaroan eta nerabezaroan, familia barruan ematen diren tratu txarren detekzio goiztiarra* eta jarraitu beharreko **protokolo bat proposatu** nahi da. Detekzio goiztiarra emateko tresna eta teknika ezberdinak ezagutuko dira eta teknika horien barruan, marrazkien analisia erabiltzen dituzten baliabideetan zentratu egingo da. Lan hau Haur Hezkuntza Etapara bideratuta dago.

### 1.1. Helburuak

- **Familia barruko tratu txarrak zer diren jakitea.**

Tratu txarrak familia barruan zein kanpo ematen dira eta ezinbertzekoa da jakitea zerk hartzen duen bere baitan familia barruko tratu txarrak.

- **Familia barruan ematen diren tratu txar motak ezagutzea.**

Oro har, familia barruko tratu txarraz mintzo garenean, burura etortzen zaigun lehen gauza gurasoek haurra kolpatu egiten dutela izaten ohi da, baina hau tratu txar mota bat bertzerik ez da, honetaz gain, bertze hainbat tratu txar bizitzen dituzte neska-mutilek haien etxeetan.

- **Familia barruan ematen diren tratu txar motak identifikatzen jakitea.**

Tratu txar motak zeintzuk diren jakiteaz gain, hezitzaile gisa, ezinbertzekoa da identifikatzen jakitea haur batek tratu txarrak pairatzen dituen edo ez, horretarako hainbat gauza kontutan hartu behar dira, hala nola, biktimaren ezaugarriak, adierazleak, e.a.

- **Babes faktoreak zeintzuk diren jakitea.**

Ezbehar jakin baten aurrean emaitza negatiboa izateko probabilitatea murrizten duten aldagaiak zeintzuk diren jakitea ezinbertzekoa da, era honetan antzeman dezakegu haurrak tratu txarrak pairatzeko arrisku gutxiago daukala.

- **Arrisku faktoreak zeintzuk diren jakitea.**

Haur batek tratu txarrak jasan ez ditzan, ezinbertzekoa da jakitea zeintzuk diren arrisku faktoreak, hau da, zein ezaugarrik areagotu dezaketen fenomeno jakin bat gerta dadin.

- **Tratu txarrak bizitzen ari den biktimaren adierazleak zeintzuk diren ezagutzea.**

Ikasle taldean haur batek tratu txarrak pairatzen dituela identifikatzeko eta honekin esku-hartu ahal izateko, biktima baten adierazleak zeintzuk diren jakin behar da, era honetan protokoloa martxan jartzeko eta haurra babesteko.

- **Detekzio goiztiarra zer den jakitea.**

Ahalik eta esku-hartze goiztiarrena eman ahal izateko, detekzio goiztiarra zer den jakitea ezinbertzekoa izango da, honek aunitz lagunduko digularik, bai tratu txarrak pairatzen ari dituen ikasleari, baita detekzioa egin duen hezitzaileari.

- **Detekzio goiztiarrerako erabili daitezkeen tresna / teknika ezberdinak ezagutzea.**

Behaketaz gain bertze hainbat teknika ezberdin badirelako eta hauek behatutakoa egiaztatu eta indartu egiten dutelako.

- **Marrazkien analisisa zer den jakitea.**

Detekzio goiztiarra emateko Haur Hezkuntzan baliabiderik egokienetakoa eta teknika hau zertan datzan jakitea ezinbertzekoa delako.

- **Marrazkien analisisa tratu txarren detekzio unean nola erabili jakitea.**

Behin teknika zertan datzan ezagututa, honen erabilera jakin beharra da, tratu txarren kasuetan praktikan jarri ahal izateko.

- **Tratu txarrak pairatzen ari dituen biktima baten marrazkia interpretatzen jakitea ezaugarri ezberdinak aztertuz.**

Haurrari marrazki bat egiteko eskatzen badiogu tratu txarrak pairatzen dituen jakiteko, ez da nahikoa marrazkia egitea, horretaz gain, hezitzaileak marrazki horretan haurrak adierazi nahi duen hura jakin, interpretatu behar du, hau da, marrazkiaren irakurketa bat egin beharra du.

- **Hezkuntza arloko protokoloa ezagutzea.**

Horrelako kasu batean esku-hartu ahal izateko, ez da nahikoa detekzioa egitearekin, jakin beharra dugu detekzioa egin ondoren gure lanbide arloari dagokion protokoloa zein den, hau da, ze pausu jarraitu behar ditugun haur hori babestu ahal izateko.

- **Hezkuntza arloan familia barruko tratu txarrak pairatzen ari dituen biktimarekin nola esku-hartu jakitea.**

Tratu txar guztiekin ez da esku-hartze berdina ematen, beraz, garrantzitsua da familia barruko tratu txarrak bizitzen ari dituen biktimari zer nolako babesa eta laguntza eman beharra diogun jakitea.

## 1.2. Galderak

- **Zer dira tratu txar motak, eta bereziki familia barruan?**

Garrantzitsua da tratu txarrak zer diren eta bere baitan zer hartzen duen jakitea, honek lagunduko baitigu hauek identifikatzen. Tratu txarrak haurraren edo nerabearen espazio ezberdinetan eman daitezke eta heldu edo adin txikikoen eskutik jaso dezakete, beraz, kontutan hartu beharra da zertan datzan familia barruan ematen diren tratu txarrak, nor izan daitezkeen erasotzailea eta ze tratu txar mota eman daitezkeen familia barruan (fisikoa, psikologikoa, axolagabekeria, e.a.)

- **Irakaslegoak badaki familia barruan ematen diren tratu txar motak identifikatzen?**

Irakaslegoak paper garrantzitsua dauka tratu txarren detekzio unean, beraz, ezinbertzekoa da tratu txar mota ezberdinak ezagutzea eta hauek identifikatzea. Honetarako, mota bakoitzean ematen diren zeinuak, ezaugarriak ezagutu beharra dituzte ondoren tratu txar mota identifikatzeko.

- **Arrisku eta babes faktoreak zeintzuk dira?**

Arriksu eta babes faktoreak ezagutzea ezinbertzekoa da, hauen identifikazioari esker familia barruan ematen diren tratu txarrak ekiditeko aukera daukagu. Azken finean, faktore hauek haurrak edo nerabeak tratu txarrak pairatzeko arriskua areagotu edo gutxitu egiten baitute.

- **Zeintzuk dira tratu txarrak pairatzen dituen biktimaren adierazleak?**

Adierazleak identifikatzen jakiteak gure behaketan lagundu egiten digu, nahiz eta hauek bakarrik ez dira nahikoak justifikatzeko haur edo nerabe batek tratu txarrak pairatzen ari dituela. Kontutan hartu beharra dena adierzleen maiztasuna da, hau da, nola, non eta norekin ematen diren.

- **Zer da detekzio goiztiarra, eta ze tresna edo teknika erabili daiteke?**

Detekzio goiztiarraren kontzeptua zein den jakin beharra dago, honi esker ahalik eta laisterren esku-hartzen hasteko aukera izango baitugu. Detekzioa emateko orduan, ikasle batek tratu txarrak pairatzen ari dituela frogatu beharra dago, horretarako, tresna eta teknika ezberdinak badaude, eta hauen berri izatea eta nola erabili daitezken jakitea beharrezkoa da.

- **Zer da marrazkien analisisa eta nola erabili daiteke tratu txarren detekzio unean?**

Marrazkien analisiaren bitartez detekzio goiztiarra eman daiteke, beraz teknika hau nola erabili daitezkeen jakitea arras baliagarria da. Irakaslegoak jakin beharra du teknika hau nola proposatu ahal dien haien ikasleei, ondoren haur edo nerabe bakoitzaren iruditik informazioa atera ahal izateko eta, kasu honetan, tratu txarrak pairatzen dituela frogatu ahal izateko.

- **Irakaslegoak badaki marrazkietan agertzen diren tratu txarren adierazleak identifikatzen / interpretatzen?**

Marrazkien analisisa detekziorako teknika gisa erabili ahal izateko, irakasleak jakin beharra du marrazkiak interpretatzen, hala nola, tratu txarrak bizitzen dituen biktima batek zer nolako marrazkiak adierazten dituen, pertsonaiak non kokatzen dituen, orriaren alde batean marrazten duen edo orrialde guztia betetzen duen, e.a.

- **Irakaslegoak ezagutzen ote du hezkuntza arloko tratu txarren protokoloa?**

Ikastetxe bakoitzean protokolo ezberdinak topatzen dira, egoera ezberdinetan nola jokatu jakiteko. Kasu honetan, irakaslegoak lanean dauden eskolako tratu txarren protokoloa ezagutzea ezinbertzekoa da, behin detekzioa egiten jakinda, egoerari erantzun bat eman beharra diogulako eta ikasle hori babestu beharra delako.

- **Irakaslegoak badaki biktimarekin nola esku-hartu?**

Biktimarekin ematen den lehen esku-hartzea garrantzitsuena da, honek bidea emango dio haurrari gertatzen zaion hori argitara ateratzeko edo beretzat gordetzeko. Beraz irakaslegoak jakin beharra du nola esku-hartu ikaslearekin, hainbat gauza kontutan hartu beharra ditu haurraren konfiantza transmititzeko eta babes prozesu horretan lagundu ahal izateko, bereziki, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa.

### 1.3. Hipotesia

Babesgabetasunaren gaiaren inguruan ezagutza eskasa dago gizartean. Hau ezjakintasunaren ondorioa da, tabutzat hartzen den gaia baita, tratu txarrak arras gutxitan ematen diren kasuak direla uste delarik. Bertzalde, gai honen inguruan mintzo garelarik, gaia abusu sexualak edo tratu txar fisikoekin erlazionatzeko joera daukagu, alde batera utziz babesgabetasun psikologikoa, emozionala eta axolagabekeria. Tratu txar multzo guzti hauek kontutan hartuz, ustez baino kasu gehiago ematen dira.

Hezkuntza sistemari eta bertako adituei erreparatuz, profesionalak ikasgeletan horrelako kasuak detektatzeko eta esku-hartzeko ez daude prest, gaiarekiko ezagutza eskasa daukate eta eskoletan esku-hartze zehatz eta garatuak ez daukate. Beraz, erran daiteke, ez dakitela zer behatu, behatzeko zer baliabide daukaten eta nola lagundu, hau da, baliabide eskasak dituzte.



## 1. OBJETIVOS, PREGUNTAS E HIPÓTESIS DEL PROYECTO

El objetivo principal de este proyecto es la detección precoz de los malos tratos en el ámbito familiar durante la infancia y la adolescencia y proponer un protocolo a seguir ante estos casos. Se conocerán diferentes herramientas y técnicas para la detección y dentro de estas se centrará en el análisis de los dibujos como recurso para la detección precoz. Este trabajo está orientado a la Educación Infantil.

### 1.1. Objetivos

- **Conocer el concepto de maltrato familiar.**

El maltrato se produce tanto dentro como fuera de la familia y es imprescindible saber qué es lo que abarca el maltrato familiar.

- **Conocer los diferentes tipos de maltrato dentro de la familia.**

En general, cuando hablamos de maltrato familiar, lo primero que nos viene a la cabeza es que los padres y madres golpean al niño, pero esto no es otra cosa que un tipo de maltrato, además de esto, los niños y niñas viven otros malos tratos en sus hogares.

- **Saber identificar los tipos de maltrato intrafamiliar.**

Además de conocer los tipos de malos tratos, como educador, es imprescindible saber identificar si un niño sufre o no malos tratos, para ello hay que tener en cuenta aspectos como las características de la víctima, los indicadores, etc.

- **Conocer los factores de protección.**

Es importante conocer cuáles son las variables que disminuyen la probabilidad de un resultado negativo ante un determinado siniestro, de esta manera se observa que el niño tiene menos riesgo de sufrir malos tratos.

- **Identificar los factores de riesgo.**

Para evitar que un niño sufra malos tratos es imprescindible saber cuáles son los factores de riesgo, es decir, qué características pueden aumentar para que se produzca un determinado fenómeno.

- **Conocer los indicadores de la víctima que está sufriendo malos tratos.**

Para identificar e intervenir en el grupo de alumnos y alumnas sobre la situación de maltrato infantil es necesario conocer los indicadores de una víctima para poner en marcha el protocolo y proteger al niño.

- **Conocer qué es la detección precoz.**

Para poder dar la actuación más temprana posible, será fundamental conocer qué es la detección precoz, lo que nos ayudará tanto al alumno maltratado, como al educador que ha detectado.

- **Conocer las diferentes herramientas / técnicas que se pueden utilizar para la detección precoz.**

Además de la observación existen otras técnicas diferentes y éstas verifican y refuerzan lo observado.

- **Conocimiento del análisis de dibujos.**

Porque es una de las herramientas más apropiadas para la detección precoz en la Educación Infantil y porque es necesario conocer en qué consiste esta técnica.

- **Saber cómo utilizar el análisis de dibujos en el momento de la detección de malos tratos.**

Una vez conocido en qué consiste la técnica, es necesario conocer su utilización para poder ponerla en práctica en los casos de detección de maltrato.

- **Saber interpretar el dibujo de una víctima maltratada analizando las diferentes características.**

Si le pedimos al niño que haga un dibujo para averiguar si sufre malos tratos, no basta con hacerlo, sino que el educador debe saber, interpretar, es decir, hacer una lectura del dibujo, lo que el niño quiere expresar en ese dibujo.

- **Conocer el protocolo educativo.**

Para poder intervenir en un caso de este tipo, no basta con efectuar la detección, necesitamos saber cuál es el protocolo que corresponde a nuestra familia profesional una vez realizada la detección, es decir, qué pasos debemos seguir para proteger a ese niño o niña.

- **Conocer cómo intervenir con la víctima que está sufriendo malos tratos familiares en el ámbito educativo.**

No todos los malos tratos son objeto de la misma intervención, por lo que es importante conocer la protección y el apoyo que debemos prestar a la víctima que está sufriendo maltrato familiar.

## 1.2. Preguntas

- **¿Qué son los tipos de maltrato y especialmente en el ámbito familiar?**

Es importante saber qué es y qué comprende el maltrato, puesto que esto nos ayudará a identificarlo. Los malos tratos pueden darse en diferentes espacios del niño, niña o adolescente y ser maltratados por personas adultas o menores de edad, por lo que hay que tener en cuenta en qué consiste el maltrato familiar, quién puede ser el agresor y qué tipo de maltrato puede darse dentro de la familia (físico, psicológico, negligencia, etc.).

- **¿Sabe el profesorado identificar los tipos de maltrato dentro de la familia?**

El profesorado desempeña un papel importante en la detección de malos tratos, por lo que es imprescindible conocer e identificar los diferentes tipos de maltrato. Para ello, deben conocer los signos que se dan y características que tiene el niño o niña en cada tipo de maltrato para posteriormente identificar el tipo de maltrato que sufre el o la menor.

- **¿Cuáles son los factores de riesgo y protección?**

Conocer los factores de riesgo y protección es fundamental, ya que la identificación de los mismos nos permite evitar los malos tratos dentro de la familia. En definitiva, estos factores incrementan o reducen el riesgo de maltrato infantil o adolescente.

- **¿Cuáles son los indicadores de la víctima que sufre malos tratos?**

Saber identificar indicadores nos ayuda en nuestra observación, aunque no son suficientes para justificar que un niño, niña o adolescente está sufriendo malos tratos. Lo que hay que tener en cuenta es la frecuencia de los indicadores, es decir, cómo, dónde y con quién se dan.

- **¿Qué es la detección precoz y qué herramienta o técnica se puede utilizar?**

Es importante conocer el concepto de detección precoz, lo que nos permitirá comenzar a intervenir lo antes posible. En el momento de la detección, hay que demostrar que un alumno está sufriendo malos tratos, para lo cual es necesario tener conocimiento de los diferentes instrumentos y técnicas y saber cómo utilizarlos.

- **¿Qué es el análisis de dibujos y cómo se puede utilizar en el momento de la detección del maltrato?**

El análisis de los dibujos permite una detección precoz, por lo que es muy útil saber cómo se puede utilizar esta técnica. El profesorado debe saber cómo puede proponer esta técnica a sus alumnos y alumnas para posteriormente extraer información de la imagen de cada niño, niña o adolescente y poder demostrar que sufre malos tratos.

- **¿Sabe el profesorado identificar / interpretar los indicadores de maltrato que aparecen en los dibujos?**

Para poder utilizar el análisis de los dibujos como técnica de detección, el profesor debe saber interpretar los dibujos que representa una víctima maltratada, dónde sitúa a los personajes, si los dibuja a un lado de la hoja o si ocupa toda la página, etc.

- **¿Conoce el profesorado el protocolo del ámbito educativo ante situaciones de maltrato intrafamiliar?**

En cada centro se encuentran diferentes protocolos para saber cómo actuar en diferentes situaciones. En este caso, es imprescindible que el profesorado conozca el protocolo que hay en la escuela para actuar ante situaciones de maltrato en la familia, ya que, una vez conocida la detección, debemos dar una respuesta a la situación y proteger a este alumno/a.

- **¿Sabe el profesorado cómo intervenir con la víctima?**

La primera intervención con la víctima es la más importante, lo que le permitirá sacar a la luz o conservar lo que le ocurre. Por lo tanto, el profesorado debe saber cómo intervenir con el alumno o alumna, tener en cuenta una serie de consideraciones para transmitir confianza en el niño y poder contribuir a este proceso de protección, en particular la comunicación verbal y no verbal.

### 1.3. Hipótesis

Falta de conocimiento social sobre el tema de la desprotección. Esto es consecuencia de la ignorancia, ya que se trata de un tema que lo tenemos como tabú y que se considera que los malos tratos son casos que rara vez se dan. Por otro lado, cuando hablamos de este tema, tendemos a relacionar el tema con los abusos sexuales o malos tratos físicos, evitando la indefensión psicológica, emocional y negligencia. Teniendo en cuenta todos estos grupos de maltrato se dan más casos de los que se esperan.

Atendiendo al sistema educativo y a sus expertos, los profesionales no están preparados para detectar e intervenir en estos casos en las aulas, puesto que tienen poco conocimiento del tema y no tienen intervenciones concretas y desarrolladas en las escuelas. Por lo tanto, se puede decir que no saben qué observar, qué recursos tienen para observar y cómo ayudarlos, es decir, tienen escasos recursos.

## 2. AUKERATUTAKO GAIAREN JUSTIFIKAZIOA

Tratu txarren detekzio goiztiarra marrazki analisisien bitartez gaia lantzea aukeratu dut, bereziki, Haur Hezkuntzako goi maila egin nuenean abusu sexualen gaiaren lanketa bat egin genuelako. Haur Hezkuntzako gradua egiterakoan berriz, marrazkien analisia landu genuen ikasgai batean, atal praktikoan. Teknika hau tratu txarraren behaketa adierazleak identifikatzen laguntzen du.

Gradu amaierako lanean pentsatzen hasi nintzenean, bi gai hauek burura etorri zitzaizkidan. Alde batetik, beharrezkoa nuen tratu txarren gaiaren inguruko ezagutza gehiago izatea, batik bat, gradu guztian zehar gai hau ez dugulako landu eta hezitzaile/irakasle bezala gai honekiko ezagutza minimoak izatea ezinbertzekoa iruditzen baizait. Bertzetik, marrazkien analisia egitea interesgarria iruditzen zitzaidan, hauen bitartez haurren inguruko informazio aunitz jaso dezakegulako, ondoren haien beharrei erantzun ahal izateko, prebentzioa bultzatuz. Beraz, tutoreari gaiak proposatzerakoan harek bi gaiak batzea planteatu zidan. Interesgarria izan zitekeelakoan, haren proposamena kontutan hartuta, bi gaiak lantzea erabaki dut.

## 2. JUSTIFICACIÓN DEL TEMA ELEGIDO

He optado por trabajar el tema de la detección precoz del maltrato intrafamiliar en niños, niñas y adolescentes a través del análisis de dibujos, sobre todo porque cuando hice el grado superior de Educación Infantil hicimos un trabajo sobre abusos sexuales. En la realización del grado en Educación Infantil trabajé el análisis de los dibujos en una materia, en el apartado práctico. Esta técnica ayuda a identificar los indicadores de observación del maltrato.

Cuando empecé a pensar en el trabajo de fin de grado, estos dos temas me vinieron a la cabeza. Por un lado, necesitaba tener más conocimientos sobre el tema de los malos tratos, sobre todo porque a lo largo de los cuatro años de grado no hemos trabajado este tema y me parece imprescindible tener conocimientos mínimos sobre el tema como educador/profesor. Por otra parte, me parecía interesante trabajar el análisis de los dibujos, ya que a través de ellos podemos recibir una gran cantidad de información sobre los niños y niñas para poder atender posteriormente sus necesidades, impulsando la prevención. Por lo tanto, al proponer los temas al tutor, él me planteó juntar ambos temas. En la confianza de que pudiera ser de interés, atendiendo a su propuesta, he decidido tratar ambos temas.

### 3. MARKO TEORIKOA

#### 3.1 Tratu txarren inguruko mitoak

Haurtzaroan jasaten diren tratu txarrei dagokionez, hainbat mito eta uste faltsu ematen dira, hau da, kultura batek munduaren eta gizartearen inguru daukan sinismenak, zeinak giza ekintzak zuzendu egiten ditu (*Mitoak*, d.g.<sup>1</sup>). Aunitzetan pentsatu egiten da gure herrialdean horrelakorik gertatzen ez dela, tratu txarrak maila sozioekonomiko baxua daukaten familietan soilik ematen dela eta erasotzailea buru-nahasteak edo droga eta alkoholaren abusuak dituzten zaintzaileak izaten ohi direla. Baina hori ez da horrela, ikerketen arabera, haurrak helduak baino biktimizatuagoak dira munduko herrialde guztietan, baita Espainian ere, eta hau gizarte maila guztietan ematen da, baina maila sozioekonomiko altuan indarkeria ikusezino dago (Del Moral Blanco, 2018).

Erasotzailearen irudiari dagokionez, nahiz eta munstroak direla eta haien seme-alabei gertatzen zaiena axola ez diela uste izaten den harren, kasu gehienetan hori ez da horrela izaten. Izan ere, gurasoak horrelako kasuetan ez dira ohartzen haien jokabideak daukaten eragin negatiboaz haien seme-alabeengan, hauek arrazoi ezberdinen ondorio izanik, hala nola, estres egoeretan itotak egoten direlako, arazo pertsonalak izaten dituzte zeinak deprimiturik edo haserrekor sentiarazten dieten, droga eta alkoholek eragindako onodrio larriei aurre egin behar dietelako, edo badira ere gurasoak zeinak uste dute haurra gogor zigortzea ona dela (Arruabarrena, Madariaga, 2006).

Bertzalde, biktimei dagokionez, uste da haurtzaroan indarkeriaren biktima izan diren pertsona oro erasotzaileak izango direla. Baina, hau ere, uste faltsu bat da. Haurtzaroan biktima izan diren pertsonak ez dira erasotzaile bihurtuko eta ez diete haien seme-alabei gaizki tratatuko. Hau arrisku faktore bat izan daitekeen harren, kontutan izan beharra dugu indarkeiraren zikloa hautsi egin daitekeela, eta bizitako bizipen horietatik hazkunde / ikaskuntza positibo bat atera daitekeela (Del Moral Blanco, 2018).

#### 3.2 Tratu txarren azalpena

##### 3.2.1 Tratu txarren definizioa

Tratu txarrak definitzen hasi aurretik, indarkeria eta tratu txarren arteko aldea zein den azalduko da. Munduko Osasun Erakundeak (MOE/OMS) adierazten duen bezala, indarkeria ahalmen fisikoa nahita erabiltzen denean ematen da, norberaren, bertze pertsona baten edo komunitate-talde baten aurka egiten denean eta lesioak, heriotza, kalte psikologikoak, garapeneko nahasteak edo gabeziak eragiteko aukera sortzen direnean. Tratu txarrei buruz mintzatzen garenean, pertsona

---

<sup>1</sup> Datarik gabe

batekiko erasoaz ari gara, pertsona horren giza eskubideen aurkako erasoari buruz, hau da, gizaki batek bertze bati, boterea izateko, egiten dion eraso fisiko edo morala da ( Marin, E. 2017).

Save The Children-ek (2018) adierazten duen bezala, Tratu txarrak haurtzaroan guraso edo zaintzaile nagusiek nahita egiten duten ekintza edo omisio oro dira. Ekintza hauek 18 urtetik beherako adingabeek jasaten dituzten abusu eta arretarik eza dira. Hauek izan daitezke fisiko edo psikologiko, sexu-abusu, arretarik eza, axolagabekeria eta merkataritzako edo bertzelako esplotazio mota guztiak, haurren osasunari, garapenari edo duintasunari kalte egiten diotenak, edo haren biziraupena arriskuan jartzen dutenak (OMS, 2020).

Adingabeengan familia babes ingurunea da, haurrak heldua erreferenteetzat hartzen ditu, baina kasuak kasu, errealitate hori ez da guztiongan betetzen eta familia ingurunea sufrimendu eta etsipen inguru bilakatzen da. Errealitate hori amets gaizto bihurtu egiten da familia barruko tratu txarrak pairatzen direnean, hau da, haurra edo gaztea familiako kide baten eskuetatik ekintza desegokiak jasaten dituenean (Sanmartín Esplugues, J., 2011) .Familiako edozein kideek jardun dezake indarkeria mota hau, baina, oro har, gizona da erabiltzen duena bai bere emazte, bai seme-alabengan (Matángolo, 2019).

Aurreko definizioan ikusi daitekeen bezala, tratu txar mota ezberdinak aurki daitezke; nagusiki, bortz motatako tratu txar antzematen dira (Arruabarrena, 2006):

- *Tratu txar fisikoak*: "Gurasoak edo legezko erantzularen batek haurrari nahita egiten dion edozein ekintza, zeinak kalte fisiko larria edo eritasuna eragiten dion edo jasateko arriskua dakarkion".
- *Axolagabekeria*: "Haurrarekin edo nerabearekin bizi diren pertsonetako inork, denbora epe batean edo inoiz ere, hauen oinarritzko behar fisikoak eta kognitiboak (elikadura, jantziak, higiena, babesa eta zainketa, arriskutsuak izan daitezkeen egoeretan, zainketa medikoak, hezkuntza, estimulazio kognitiboa) betetzen ez dituenean".
- *Tratu txar emozionala*: "Familiako adin nagusiko edozein kidek iseka, irain, gaitzespen, arbuio edo abandonatzeko mehatxu modura hitzez errandako eraso iraunkorra, eta haurrak helduarekiko harreman loturak ezartzeko egindako saiakerak etengabe blokeatzea, adibidez, haurra saihestetik, itxita edo giltzapean uzteraino".
- *Abandonu emozionala*: "Heldu erreferenteak haurrak edo nerabeak haien arteko harremana sendotzeko azaldutako seinaleak, emozio adierazpenak eta jokaerak erantzuten ez dituenean, helduak elkarreragina eta harremana izateko ekimenik ez adierazten duenean".

- *Sexu abusua*: “Pertsona helduak edo nerabeak (zeina adingabekoa den eta biktima baino zaharragoa) haurrarekin desegokiak diren sexu jokaerak dituenen. Sexu abusuaren barnean, sexu jarduera zabala biltzen da ukipen fisikoarekin edo halakorik gabe, hala nola, sarketa genitala, haurra edozein sexu jardueretan parte harraraztea, haurrak esplotatzea prostituzioaren edo legez kanpoko bertze sexu jardueretan, baita haurrak esplotatzea material zein erakusketa pronografikoen ekoizpenean”.

Hauetaz gain, badira familia barruan ematen diren bertze tratu txar mota batzuk eta aditu bezala, ezagutu behar direnen artean, hauek dira nabarmendu nahi direnak:

- *Jaio aurreko tratu txarrak*. Aldez aurretik pentsatutako eraso-ekintzat hartzen da, nahigabe egindako axolagabekeria edo ahazte baten ondorio gisa, beraz, haurdun dagoen emakumeak arriskuan jar dezake fetuaren garapena edo jaio aurretik lesioak eragin diezaioke (Jiménez, M., Martínez, J. L., López, L., Fernández, M., & Pérez, A., 2015: 114-141).
- *Botereek eragindako Münchhausen-en sindromea*. Gurasoek edo tutore legalak maiztasun handiz haurra azterketa medikoetara eramaten dutenean, sendagaien hornidura edo ospitaleratzeak gertatzen direnean, fikziozko sintomak adeiraziz edo helduak aktiboki sortutakoak (adibidez, haurrari substantziak emanez) (Rivers, 2014).
- *Lan-esplotazioa*. Haurra erabili egiten denean helduarentzat onuragarriak diren irabaziak eskuratzeko, ustiapen ekonomikoa eta hezkuntza zailtzen duen edozein jarduera egitea dakarrena («Detección y prevención del maltrato infantil desde el centro educativo», 2013).

Tratu txarrak banaka ematen direla uste da, eta hau egia izateaz gain, batzuetan elkarrekin agertu daitezke, hau da, haur batek bi tratu txar mota edo gehiago aldi berean pairatu ditzazke (Rivers, 2014).

### **3.2.2 Mundu mailako, Espainiar Estatuko eta Nafarroako tratu txarren datuak**

#### **3.2.2.1 Mundu maila**

Haurren kontrako biolentziari buruzko munduko txostenean jasotzen dituen datuak isladatuak aurkitzen dira jarraian. Haur guztiek eskubidea dute beren bizitzarekin zerikusia duen edozein pertsonak ezarritako indarkeriaren aurkako babesa jasotzeko. Baina, nahiz eta eskubide hau izan, anitzak dira gaur egun munduan tratu txarrak pairatzen dituzten adingabeak (Pinheiro, 2010).

Arazoaren izaerari eta irismenari dagokienez, haurrek aukera handiagoa daukate indarkeria jasateko lehen mailako zaintzaile eta familiakoek eraginda, nerabeekin alderatuz. Izan ere, zenbat eta



zaharragoak izan, orduan eta denbora gehiago ematen dute etxetik kanpo eta familiarik urrun. Hori dela eta, nerabeek etxetik kanpoko pertsonen erasotzeko aukera handiagoa daukate.

Indarkeria fisikoari dagokionez, bi ataletan zatitzen badugu, alde batetik, hilketa egongo litzateke. Kasu honetan, mundu mailan, 15 eta 17 urte bitarteko adingabeak dira arrisku handieneko taldea eta, bertzetik, haurtxoena. ELGA (OCDE)ko herrialdeei buruzko datu batzuen arabera, urtebetetik beherako haurren heriotza arriskuen kasua hiru aldiz handiagoa da 1-4 urtekoen aldean. OMEren kalkuluen arabera, 5 urtetik beherako hilketa-tasa handienak Sahara hegoaldeko Afrikan, Ipar Amerikan ematen dira, alidz, hilketa-tasa baxuenak diru sarrera altuko herrialdeetan, hala nola, Europa, Ekialdeko eta Mendebaldeko Asian. 10 urtetik beherako hilketen % 50-75 familiako kideek eraginak dira. Aldiz, 10 eta 14 urte bitarteko hilketetan %20raino jaisten da, eta %5eraino 15-19 urteko gazteengan. Kasu hauetan, arrazoi ohikoenak buruko edo barne-organoetako lesioak izaten dira, bertze arrazoi batzuk, nahita itotzea eta kolpeak. Adina eta sexua arrisku-faktore garrantzitsuak dira baita ere.

Bertzalde, indarkeria fisiko ez-hilgarria egongo litzateke. Mundu osoko ikerketen arabera, etxeko adingabeen aurkako indarkeria fisikoa oso hedatuta dago eskualde guztietan. AEBetan egindako ikerketa batean, gurasoen %84a ados zegoen batzuetan indarkeria fisikoarekin zigortu behar dela, eta Koreako Errepublikan egindako bertze ikerketa batean, gurasoen %90ak uste du beharrezkoa dela zigor fisikoa. Herrialde horietan ez bezala, Kanadan egindako ikerketa batean, galdeketa egin zitzaizen pertsonen %59ak uste du tratu txar fisikoa kaltegarria dela, eta %86ak ez duela ezertarako balio.

Laburbilduz, 2 eta 4 urte bitarteko 300 milioi haur inguru (4tik 3) diziplina bortitzeko biktimak dira zaintzaileen aldetik; 250 milioi (10etik 6 inguru) bitarteko fisikoen bidez zigortzen dira. Mundu mailan, 1.100 milioi zaintzailek (lautik bat baino gehixeagok) erraten dute zigor fisikoa beharrezkoa dela hazteko edo hezteko (Una situación habitual: Violencia en las vidas de los niños y los adolescentes, d. g.).

Axolagabekeari dagokionez, ez dakigu zenbateko eragina duen tratu honek haurren heriotza-tasetan. Kasu horiek interpretatzea zaila da osasun publiko eskaseko eta desnutrizioko egoeretan. Herrialde industrializatu batzuetan, axolagabekeria tratu txar erregistratuen proportzio handiena da. Ezgaitasuna duten haurrak arduragabekeriako tratua eta abandonua jasateko arrisku handia daukate. Indian egindako ikerketa batean, neskek lehen haurtzaroan mutikoek baino arreta gutxiago jasotzen dute.

Sexu-indarkeriari dagokionez, OMEren kalkuluen arabera, 150 milioi neskatok eta 73 milioi mutilek sexu-harreman behartuak izan dituzte, edo harreman fisikoa eskatzen duten bertze sexu-indarkeria mota batzuk, nahiz eta, seguru asko, benetako harremanaren azpitik dagoen kalkulu bat izan. Diru-sarrera handiak eta ertainak dituzten 21 herrialdeetako inkesta epidemiologikoen berrikuspen batek, gutxienez emakumeen % 7ak (% 36ra arte) eta gizonen % 3ak (% 29ra arte) haurtzaroan sexu-indarkeriaren biktima izan zirela adierazi zuen. Azterketa horien arabera, nesken sexu-abusuaren %14 eta %56 artean eta mutilen sexu-abusuaren %25a senideek edo aitaorde / amaordeak eginak izan zirela aitortu zuten, gehiengoak familiako autore maskulinoak izendatu zituztelarik eta, ondoren, familiako lagunak. Nazioarteko azterketen konparazioak agerian uzten du, oro har, nesken aurkako sexu-indarkeriaren tasak handiagoak direla, eta gehienek ez dute sexu-indarkeria salatzen, haiei eta haien familiei gertatuko zaienaren beldur baitira.

Amaitzeko, indarkeria psikologikoz ezer gutxi dakigu, salbu bertze indarkeria mota batzuekin batera gertatzen dela maiz. Zigor mota batek bertze bati bidea eman diezaioke, adinaren arabera. Swazilandian 6 eta 18 urte bitarteko 2.000 hurrekin egindako azterlan baten arabera, zigor psikologikoa ohikoagoa zen haur zaharragoekin eta haurrik txikientzako berriz, zigor fisikoa.

### 3.2.2.2 Espaina maila

Espainia mailan urteetan zehar heman diren datu aldaketak alderatuz, ikusi daiteke, 2019an jakinarazpenen erregistroan beherakada handia eman eta gero, goranzko joera hasi dela berriz, horren ondorioz, 2021ean azken borts urteetan jasotako jakinarazpen erregistro handiena eman delarik (Observatorio de la Infancia. Dirección General de Derechos de la Infancia y de la Adolescencia. Secretaría de Estado de Derechos Sociales., 2022) (ikusi 1. taula).

#### 1.Taula

Larritasun bidezko jakinarazpenen bilakaera

		2017	2018	2019	2020	2021
Larria	<b>Abs.</b>	5.713	6.402	7.147	7.539	10.140
	<b>Tasa</b>	71,8	80,6	109,5	116,7	159,5
Arina - Moderatua	<b>Abs.</b>	11.064	12.399	8.218	8.149	11.381
	<b>Tasa</b>	139,1	156,1	125,9	126,1	179,1
<b>TOTALA</b>	<b>Abs.</b>	<b>16.777</b>	<b>18.801</b>	<b>15.365</b>	<b>15.688</b>	<b>21.521</b>
	<b>Tasa</b>	<b>211,0</b>	<b>236,7</b>	<b>235,4</b>	<b>242,9</b>	<b>338,6</b>

18 urtetik beherako pertsonen 1/100.000 tasa

*Oharra:* Taula honetan ikusi daiteke 2017 urtetik 2021era bitarte ematen diren 18 urtetik beherako haur eta gazteen jakinarazpenen bilakaera, larritasun mailaren arabera. *Tabla MI-9. Evolución de las notificaciones por gravedad taulatik egokitua*, Gizarte eskubideen eta agendaren ministerioa, 2022, Espainiako Gobernu. Txostena. ([Boletín de datos estadísticos de medidas de protección a la infancia y la adolescencia](#))

Deigarria da, halaber, jakinarazpen arin eta ertainek 2019an beherakada izan zutela, eta berriz ere gora egin dutela 2021ean, aldiz, jakinarazpen larriek gora egin dute 2016. urtetik aurrera (ikusi 1.taula).

Denboraren joanari dagokionez, nabarmentzekoa da gizonezkoei buruzko jakinarazpenen kopurua nabarmen igo dela 2018an, kopuru osoaren %62,34; emakumezkoei dagokionez, berriz, %37,65. Ordutik sexuen arteko ehunekoen balantzea egonkor mantendu da, eta sexuen arteko aldea murriztu egin da 2021ean, nahiz eta emakumezko adingabeen tratu txarren jakinarazpenak igo egin diren (ikusi 2. taula).

## 2 .Taula

Jakinarazpenen bilakaera sexuaren arabera

		2017	2018	2019	2020	2021
Emakumezkoa	<b>Abs.</b>	7.097	7.079	7.105	7.242	10.473
	<b>Tasa</b>	89,2	89,1	108,8	112,1	164,8
Gizonezkoa	<b>Abs.</b>	9.680	11.722	8.260	8446	11.048
	<b>Tasa</b>	121,7	147,5	126,5	130,7	173,8
<b>TOTALA</b>	<b>Abs.</b>	<b>16.777</b>	<b>18.801</b>	<b>15.365</b>	<b>15.688</b>	<b>21.521</b>
	<b>Tasa</b>	<b>211,0</b>	<b>236,7</b>	<b>235,4</b>	<b>242,9</b>	<b>338,6</b>

18 urtetik beherako pertsonen 1/100.000 tasa

*Oharra:* Taula honetan ikusi daiteke 2017 urtetik 2021era bitarte ematen diren 18 urtetik beherako haur eta gazteen jakinarazpenen bilakaera, sexuaren arabera . *Tabla MI-10. Evolución de las notificaciones por sexo taulatik egokitua*, Gizarte eskubideen eta agendaren ministerioa, 2022, Espainiako Gobernuua. Txostena ([Boletín de datos estadísticos de medidas de protección a la infancia y la adolescencia](#) )

Nazionalitateari dagokionez, ikusten dugu ugaritu egin direla adingabeko atzerritarren aurkako tratu txarren jakinarazpenak; izan ere, 2020an %26,93 ziren guztira, 2021ean berriz, %29,26 izatera igaro dira, %49,02ko igoera eman delarik. Baina hori erranda, kopuru horiek aurreko urteetatik urrun daude, bereziki 2018tik, izan ere, adin txikiko atzerritarren jakinarazpenak kopuru osoaren %44,89 ziren (ikusi 3.taula).

**3 .Taula**

Jakinarazpenen bilakaera nazionalitatearen arabera

		2017	2018	2019	2020	2021
Atzerritarra	<b>Abs.</b>	5.720	8.439	5.067	4.225	6.296
	<b>Tasa</b>	71,9	106,2	77,6	65,4	99,1
Espainiarra	<b>Abs.</b>	11.027	10.352	10.289	11.456	15.222
	<b>Tasa</b>	138,7	130,3	157,6	177,3	239,5
<b>TOTALA</b>	<b>Abs.</b>	<b>16.777</b>	<b>18.801</b>	<b>15.365</b>	<b>15.688</b>	<b>21.521</b>
	<b>Tasa</b>	<b>211,0</b>	<b>236,7</b>	<b>235,4</b>	<b>242,9</b>	<b>338,6</b>

18 urtetik beherako pertsonen 1/100.000 tasa

*Oharra:* Taula honetan ikusi daiteke 2017 urtetik 2021era bitarte ematen diren 18 urtetik beherako haur eta gazteen jakinarazpenen bilakaera, nazionalitatearen arabera. *Tabla MI-11. Evolución de las notificaciones por nacionalidad* taulatik egokitua, Gizarte eskubideen eta agendaren ministerioa, 2022, Espainiako Gobernuua. Txostena ([Boletín de datos estadísticos de medidas de protección a la infancia y la adolescencia](#) )

Jakinarazpen gehienak, ohi bezala, Gizarte Zerbitzuetako adituek jakinaraziak dira. Ikusten ahal da, halaber, 2021ean nabarmen handitu zirela hezkuntza-eremutik eta osasun-eremutik datozen jakinarazpenak. Segurtasun-indar eta -kidegoen eremua berreskuratu da, baina 2018arekin zerikusirik ez du, Gizarte Zerbitzuek bidalitako jakinarazpenekin ia bat baitzeuden (ikusi 4.taula).

**4.taula**

Jakinarazpenen bilakaera jatorrizko eremuaren arabera

		2017	2018	2019	2020	2021
Segurtasun indar eta gorputzak	<b>Abs.</b>	4.127	6.295	1.661	1.457	2.113
	<b>Tasa</b>	51,9	79,2	25,4	22,6	33,2
Hezkuntza	<b>Abs.</b>	1.827	2.114	2.631	1.870	3.442
	<b>Tasa</b>	23,0	26,6	40,3	28,9	54,2
Bertze batzuk	<b>Abs.</b>	1.943	2.216	2.471	4.813	4.405
	<b>Tasa</b>	24,4	27,9	37,8	74,5	69,3
Osasun zerbitzuak	<b>Abs.</b>	1.407	1.472	1.157	1.400	1.768
	<b>Tasa</b>	17,7	18,5	17,7	21,7	27,8
Gizarte zerbitzuak	<b>Abs.</b>	7.473	6.704	7.445	6.148	9.793
	<b>Tasa</b>	94,0	84,4	114,0	95,2	154,1
<b>TOTALA</b>	<b>Abs.</b>	<b>16.777</b>	<b>18.801</b>	<b>15.365</b>	<b>15.688</b>	<b>21.521</b>
	<b>Tasa</b>	<b>211,0</b>	<b>236,7</b>	<b>235,4</b>	<b>242,9</b>	<b>338,6</b>

18 urtetik beherako pertsonen 1/100.000 tasa

*Oharra:* Taula honetan ikusi daiteke 2017 urtetik 2021era bitarte ematen diren jakinarazpenen bilakaera, jatorrizko eremuaren arabera. *Tabla MI-12. Evolución de las notificaciones por ámbito de procedencia* taulatik egokitua, Gizarte eskubideen eta agendaren ministerioa, 2022, Espainiako Gobernuua. Txostena ([Boletín de datos estadísticos de medidas de protección a la infancia y la adolescencia](#) )

Aurreko urteetan bezala, adin-tarteen arabera bilakaerak 11-14 eta 15-17 urtekoen artean datu nabariak antzematen dira. Azken tarte horretan joera-aldaketa bat ikusten da, 2019 eta 2020an datuen beherakada eman ondoren, 2021ean berriro gorakada handi bat ematen da bi adin tarteetan (ikusi 5.taula).

### 5.taula

Jakinarazpenen bilakaera, adin-taldeka

		2017	2018	2019	2020	2021
0 - 3	<b>Abs.</b>	2.498	2.383	2.372	2.868	3.467
	<b>Tasa</b>	31,4	30,0	36,3	44,4	54,4
4 - 6	<b>Abs.</b>	1.787	1.610	1.845	2.050	2.325
	<b>Tasa</b>	22,5	20,3	28,3	31,7	36,6
7 - 10	<b>Abs.</b>	2.928	2.670	2.925	2.949	3.958
	<b>Tasa</b>	36,8	33,6	44,8	45,7	62,3
11 - 14	<b>Abs.</b>	4.329	4.487	4.576	4.581	6.884
	<b>Tasa</b>	54,4	56,5	70,1	70,9	108,3
15 - 17	<b>Abs.</b>	5.223	7.612	3.616	3.228	4.875
	<b>Tasa</b>	65,7	95,8	55,4	50,0	76,7
<b>TOTALA</b>	<b>Abs.</b>	<b>16.765</b>	<b>18.762</b>	<b>15.334</b>	<b>15.676</b>	<b>21.509</b>
	<b>Tasa</b>	<b>210,8</b>	<b>236,2</b>	<b>234,9</b>	<b>242,7</b>	<b>338,4</b>

18 urtetik beherako pertsonen 1/100.000 tasa

*Oharra:* Taula honetan ikusi daiteke 2017 urtetik 2021era bitarte ematen diren jakinarazpenen bilakaera, adin taldeen arabera. *Tabla MI-13. Evolución de las notificaciones por grupos de edad taulatik egokitua*, Gizarte eskubideen eta agendaren ministerioa, 2022, Espainiako Gobernuak. Txostena ([Boletín de datos estadísticos de medidas de protección a la infancia y la adolescencia](#))

Tratu txar motei dagokionez, axolagabekeria da adingabeei pairatzen duten tratu txar mota ohikoena (jakinarazi diren tratu txar moten %42,75), ondoren tratu txar emozionalak jarraitzen dietelarik (%30,75). 2020. urteari dagokionez, bai axolagabekeriarekiko jakinarazpenak, bai tratu txar emozionalengatiko jakinarazpenak jaitsi egin dira, eta tratu txar fisikoak %63,36 igo dira, 2020. urteko jakinarazpenekin alderatuta. Hala, egindako jakinarazpen guztien %16,07 izatetik %16,91 izatera igaro da, eta bereziki, sexu-abusuenak gehitu dira, %133,16, 2020an egindako tratu txarren %6,38 izatetik %9,59 izatera igaro baitira.

Tratu txar mota guztietan, sexu femeninoko adingabeei buruzko tratu txarren susmoaren jakinarazpen gehiago ematen dira, mutilekin alderatuz, zabarkeria kasuetan izan ezik, horietan adin txikiko mutiletan kasu gehiago baitaude. Aldiz, alde handia antzematen da bi sexuen artean sexu

abusuko kasuetan arreta jartzen badugu, non jakinarazpenen %57,61a emakumezko adin txikikoetan eman da (ikusi 6.taula).

Larritasun mailari dagokionez, jakinarazpen larri gehiago eman dira arin-moderatuak baino tratu txar sexual, emozionalei eta fisikoei dagokienez, aldea handiena sexu abusuen kasuena izanik, jakinarazpenen %58,61 larriak baitira (ikusi 6.taula).

## 6.taula

Tratu txar motak sexu eta larritasunaren arabera

TRATU TXAR MOTAK	GUZTIRA		SEXUA				LARRITASUN MAILA			
	Abs.	Tasa	Emakumezkoa		Gizonezkoa		Larria		Arina - Ertaina	
			Abs.	Tasa	Abs.	Tasa	Abs.	Tasa	Abs.	Tasa
Abusu sexuala	3.206	50,4	1.847	29,1	1.359	21,4	1.879	29,6	1.327	20,9
Emozionala	10.284	161,8	5.162	81,2	5.122	80,6	5.361	84,3	4.923	77,5
Fisikoa	5.657	89,0	2.940	46,3	2.717	42,7	2.976	46,8	2.681	42,2
Axolagabek eria	14.300	225,0	6.633	104,4	7.667	120,6	6.349	99,9	7.951	125,1
<b>Guztira</b>	<b>33.447</b>	<b>526,2</b>	<b>16.582</b>	<b>260,9</b>	<b>16.865</b>	<b>265,3</b>	<b>16.565</b>	<b>260,6</b>	<b>16.882</b>	<b>265,6</b>

Tasa 1/100.000 18 urtetik beherako pertsonak

*Oharra:* Taula honetan ikusi daiteke tratu txar motak sexu eta larritasunaren arabera . *Tabla MI-18. Tipos de maltrato por sexo y gravedad* taulatik egokitua, Gizarte eskubideen eta agendaren ministerioa, 2022, Espainiako Gobernua. Txostena ([Boletín de datos estadísticos de medidas de protección a la infancia y la adolescencia](#) )

### 3.2.2.3 Nafarroa maila

Aurkeztutako estatistiketan jasotako informazioa ez da osoa, autonomia-erkidego guztietan RUMI datu-babesa erabiltzen bada ere, ez dira betetzen jakinarazpen-erregistro guztiak. Beraz, jarraian azaltzen diren iruzkin guztiak 2021. urteko datuei dagozkie zehazki, baina ez dira inola ere erreferentzia-eremuan haurren tratu txarren egoerari buruzko ondorio zehatzak, baizik eta RUMI informazio-sistemaren erabilera-mailari buruz (Observatorio de la Infancia. Dirección General de Derechos de la Infancia y de la Adolescencia. Secretaría de Estado de Derechos Sociales., 2022).

Jakinarazpenen kopuruak goranzko joerari eusten diola ikusten da. 2020an %2,1eko hazkundera izan zen 2019 urtearekin alderatuta, eta 2021ean, berriz, %37,18ko igoera izan da, 15.688 jakinarazpen izatetik 21.521 izatera igaro baita. Batez ere, 2020an erregistratutako jakinarazpenen kopuruarekin alderatuz, Nafarroan (% 86,29), Murtzian (% 80,31), Andaluzian (% 51,16) eta Balearretan (% 46,88) autonomia erkidegoetan igo da. Nabarmentzekoa da Kantabria, 2020ko datuekin alderatuta % 93,30 jaitsi dela.

Jakinarazpen kopurua autonomia-erkidego bakoitzeko 18 urtetik beherako biztanleria-tasarekin erlazionatuz, Balear Uharteetan, Andaluzian, Extremaduran eta Kanarietan jakinarazpen gehienak eman dira.

## 7. taula

Autonomia-erkidegoen arteko alderaketa - Jakinarazpenak, guztira

	GUZTIRA	
	Abs.	Tasa
Andaluzia	9.346	597,7
Aragoi	288	131,2
Asturias	113	87,1
Balearrak	3.879	1.839,2
Kanariak	1.587	465,6
Kantabria	15	16,7
Gaztela eta Leon	823	245,0
Gaztela-Mantxa	57	15,7
Katalunia	SD	---
Valentziako Erkidegoa	1.191	135,5
Extremadura	991	585,4
Galizia	SD	---
Madril	1.211	100,8
Murtzia	925	304,6
<b>Nafarroa</b>	<b>326</b>	<b>272,3</b>
EAE	734	206,1
Errioxa	23	42,6
Ceuta	12	63,8
Melilla	SD	---
<b>Guztira</b>	<b>21.521</b>	<b>338,6</b>

18 urtetik beherako pertsonen 1/100.000 tasa

*Oharra:* Taula honetan ikusi daiteke egindako jakinarazpen guztiak autonomia erkidego bakoitzean. *Tabla MI-1. Comparativa CCAA - Total de notificaciones* taulatik egokitua, Gizarte eskubideen eta agendaren ministerioa, 2022, Espainiako Gobernuua. Txostena ([Boletín de datos estadísticos de medidas de protección a la infancia y la adolescencia](#))

Aurreko taulan ikusi daitekeen bezala, 326 izan dira 2021. urtean Nafarroan emandako jakinarazpenak. Larritasun mailan arreta jarriz gero, nahiz eta jakinarazpen gehiago eman diren arin eta moderatuen kasuetan, larriekin alderatuz, Nafarroa mailan ikusi daiteke 326 jakinarazpenetatik, 218 larriak izan direla eta arin-moderatuan berriz 108. Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuz, 2021ean emandako jakinarazpenak 734 izan dira eta larritasun mailari dagokionez, 107 larriak eta 627 arin-moderatuak izan dira. Hemen egin daitekeen alderaketa da Nafarroan jakinarazpen %60 baino gehiago larriak izan direla, aldiz, EAEn jakinarazpenen %20 baino gutxiago (ikusi 7. taula).

Aurreko urteetan bezala, orokorrean gizonezko adingabeei buruzko jakinarazpenak gehiago dira (jakinarazpen guztien %51,34) emakumezkoak baino (%48,66). Nafarroan, aldiz, ikusi daiteke

emakumezkoen jakinarazpenak 166 izan direla eta gizonezkoetan aldiz 160, haueetatik 262 espainiarrak eta 64 atzerritarrak direlarik.

Estatu mailan, jakinarazpen gehienak gizarte-zerbitzuen esparrukoak dira, erregistratutako jakinarazpen guztien %45,50. Nafarroan jaso izan diren jakinarazpenetan ere aldea handia ikusten da, Gizarte Zerbitzuak eta gainontzeko departamentuen artean. Hau da, Gizarte Zerbitzuek 242 jakinarazpen egin dituzte, aldiz, kidegoak eta segurtasun-indarrak 12; hezkuntza 2; “bertze batzuk” 14; eta azkenik, osasun zerbitzuak 14. Datu haueetan ikusi daiteke, egoera hauek jakinarazteko Gizarte Zerbitzuetako langileak prestatuagoak daudela.

Ohikoa denez, erregistratzen diren jakinarazpen gehienak 11-14 urte bitarteko taldeena izaten da (adingabeei egindako tratu txarren jakinarazpen guztien %32,01), atzetik 15-17 urteko tartean. Erregistratzen diren jakinarazpen gutxienak 4-6 urteko tartean izaten da. Nafarroak, aurreko datuekin bat egiten du 15-17 urteko tarteko datuekin izan ezki, hau da, 0-3 urte bitartean 40 jakinarazpen erregistratu dira; 4-6 urte bitartea 38; 7-10 urte bitartean 62; 11-14 urte bitartean 124; eta azkenik, 15-17 urte bitartean 62. Desgaitasuna duten pertsonen jakinarazpenak berriz, 326tik 26 dira desgaitasunak daukatenak eta tratu txarrak pairatu dituztenak. Nahiz eta jasotako notifikazioen %10 baino gutxiago izan, orokorrean ere, populazioaren zati txiki bat dira desgaitasunak daukaten pertsonak, beraz datu hori kontutan hartu ezgero, anitzak dira desgaitasuna daukaten pertsonak eta tratu txarrak jasan dituztenak.

Kontutan hartuta, jakinarazpen bat egiterakoan, tratu txar bat baino gehiago adierazteko aukera dagoela, alde handia antzematen da jakinarazpen eta jakinarazitako tratu txarren datuen artean. Hau da, Nafarroan 326 dira erregistratutako jakinarazpenak, baina jakinarazitako tratu txar motak 444 eta igotzen da (abusu sexuala 42, emozionala 124, fisikoa 76 eta axolagabekeria 202).

### **3.2.3 *Tratu txarren detekzio goiztiarra***

Detekzio goiztiarrak aukera ematen digu adingabeengan indarkeriak izan dezakeen eragina ahalik eta gehien gutxitzeko (Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategia 2022-25, 2022). Honek, haurrek bizitzen dituzten tartu txar egoeren errepikapena eta ondorioak murrizteko aukera ematen digu, baita biktima erasotzailearengandik urrundu, tratamendu psikologiko goiztiarra eskaini, ondorioak eta baliabideak bizkortu eta haurrarentzat kaltegarriak diren bertze egoeretatik babestu daiteke (Oderiz, 2020). Horretarako, ezinbertzekoa da jakitea zeintzuk diren tratu txarrak bizitzen ari dituen haur baten adierazleak, baita arrisku faktoreak, era honetan denboraz identifikatu daiteke adin txikikoa bizitzen ari den egoera eta esku-hartze goiztiarra eskaini ahal zaio.



### 3.2.3.1 Arrisku faktoreak

Babes faktoreak, ezbehar jakin baten aurrean emaitza negatiboa izateko probabilitatea murrizten duten aldagaiak dira, tratu txarren esperientzia negatiboak arintzen dituztenak eta indarkeria berriz sortzea eragozten dutenak (Sanmartín Esplugues, J., 2011). Arrisku faktoreak aldiz, tratu txarrak gertatzeko probabilitatea areagotzen duten ezaugarriak dira (Otero, Lourido, Salina, 2017).

Arruabarrenak (2008) arrisku faktoreak lau arlotan sailkatu edo bereizi egiten ditu: guraso edo zaintzaileen ezaugarriak, familiaren ezaugarriak, haurraren ezaugarriak eta ingurunearen ezaugarriak. Era honetan, babesik gabe dauden kasuak antzematez gain, arrisku handiko egoeran dauden familiak igartzeko aukera ematen du. Jarraian ezaugarri bakoitza azalduko da.

- Guraso eta zaintzaileen ezaugarriak.
  - Nortasunaren eta ongizate psikologikoaren ezaugarriak. Haien seme alabekin tratu txarrak erabili edo axolagabekeriak jokatzen dutenek arazo emozionalak pairatzen dituzte, baita ezongi psikologikoak.
  - Babesgabetasun historia haurtzaroan. Guraso izateko unean, haiek haurtzaroan bizitakoa eragina izan dezake, hau da, honek eredu egokirik izan ez badu, arazoak izango ditu bere seme alabez arduratzeko eta beren beharrak erantzuteko. Baina badira kasuak, zeinak haurtzaroan tratu txarra edo axolagabekeria pairatu izanagatik gero tratu txar emaile bihurtzen ez direnak.
  - Toxikomaniak eta alkoholismoa. Kasu batzuetan ematen da gurasoetako batek edo biek alkoholarekin edo toxikoekin arazoak izatea. Hauek ez dira gai izaten beren seme-alabetaz arduratzeko, dirua familiaren beharretan erabili ordez, droga eta alkoholean gastatu dezakete. Haurdunaldian hauen kontsumoa ematen bada, “jaino aurreko tratu txarra” izango litzake.
  - Jarrerak eta ezagupenak. Kasu aunitzetan, gurasoek, haurraren portaerari dagokionez, jarrera eta eskumen negatiboak izaten dituzte. Maiz gurasoek haurren garapenari buruzko ezagupen askirik ez edo iritzi okerrak izaten dituzte. Hauek garapenari buruzko ezagupenik ez izateak, errealak ez diren aurreikuspenak izatera eramanez ahal diete, eta aurreikuspenak betetzen ez badira, haurrek arrazoirik gabeko zigorrak jasan dezakete. Bertzetik, badira gurasoak frustraturik sentitzen direnak ezin badute haien seme-alaben jokabideak kontrolatu edota bidertatu, honek ekartzen duen ondorioa haurra hitzez edo fisikoki erasotua izatea izaten da.
  - Adina. Gurasoak gazteegiak direnean haurra babesik gabe geratzeko arriskua dago, honekin batera arazo ekonomiko, laguntza falta eta estres handia eman daiteke.

- Familiaren ezaugarriak.
  - Familia egitura. Guraso bakarra izatea arrisku faktorea da, egindako ikerketa batzuek erraten baitute hauek aurre egin beharra diotela arazo ekonomiko eta estres egoera gehiagori, eta honetaz gain kanpoko laguntza txikiagoa dute. Aldiz, axolagabekeria ematen den familien kasuan, gehienetan etxe berean jende gehiago bizi da eta familia osatzen duten kideak gehiago aldatzen dira.
  - Bikotekideen arteko gatazka edo etxeke indarkeria. Familia aunitzetan etxeke indarkeira ematen da (%30-60 bitarte) eta kasu hauetan haurrak babesik gabe egoten dira, indarkeria horren lekuko izan daitezkeelarik.
  - Estresa.
  - Gurasoen eta seme-alaben arteko harremana. Tratu txar emaile diren gurasoek gutxitan aitortzen dituzte haien seme-alaben jokabide positiboak, aldiz, berehala ohartzen dira haien jokabide negatiboak. Kasu hauetan gurasoek laguntza txikiagoa ematen diete haien seme alabei, maitasun gutxiago adierazten diete, haiekin jolasean gutxitan aritzen dira eta hotzagoak izaten dira.
- Haurraren ezaugarriak. “Haurrak ez dira beren babesgabetasunaren erantzule, baina beren ezaugarrietako batzuek zerikusia dute babesik gabe gelditzearekin”(Arruabarrena, 2008).
  - Adina. Gazteenek, garapen maila baxuan eta beti norbaiten zaintzapean daudenak babesik gabe geratzeko arrisku handiagoa daukate.
  - Ezgaitasunak. Ezgaitasun fisikoak, emozionala edo kognitiboak dauzkateneak tratu txarrak jasateko arrisku handiagoa daukate, baina ezin da jakin ezgaitasun horiek babesgabetasunaren ondorio eta arrazoi diren.
  - Jokabide arazoak. Ikerketek adierazten dute hauek (erasokortasuna, arreta falta, izaera zaila, portaera arazoak) babesik gabe geratzeko arrisku handiagoa daukatela. Kasu batzuetan, arazoa ez da haurrak ezaugarri horiek izatea, baizik eta gurasoak ez direla arazo horietaz ohartzen.
- Ingurunearen ezaugarriak.
  - Pobrezia eta langabezia. Lan arloko arazoak edo ekonomikoak dituzten familia gehienak modu egokian arduratzen dira beren seme-alabek. Nahizta tratu txarrak eta axolagabekeria gizarte maila guztietan ematen den, pobrezia eta langabezia estres faktoreak dira.
  - Gizartean bakarturik eta laguntzarik gabe.
  - Indarkeria ingurunean. Indarkeria nagusi den auzo batean, haurrak babesgabetasuna jasan dezake. Honek eragin negatiboa dauka bertan bizi diren guraso zein

haurrentzat, beraiek ere indarkeria erabiltzen ahal baitute haien arazoak konpontzeko baliabide gisa.

### 3.2.3.2 Tratu txarren agerpenaren adierazleak

Tratu txarrak pairatzen dituen haurrak ez daki helduaren erasoetatik defendatzen, ez daki laguntza eskatzen, ez ditu tratu txar gisa identifikatzen ere. Hori dela eta, ezinbertzekoa da detekzio goiztiarra ematea, eta honetarako, kontutan hartu beharra ditugu adin txikikoek adierazten dituzten ezaugarri edo seinaleak, hauek fisikoak, jarrerazkoak edo emozionalak izan daitezke (Rivers, 2014).

Tratu txar mota bakoitzean kontutan hartu beharreko adierazleak azaltzea egokia da, eta hortik abiatu da lan honen helburua. Hala eta guztiz ere, behaketa egiteko, adierazleak lagungarriak dira, baina kontutan izan beharra dugu hauek, berez, ez direla nahikoak tratu txarren existentzia frogatzeko, adierazpenen maiztasuna kontutan hartu behar baita: nola, non eta norekin. Bertzetik, era askotako adierazleak ez dute erran nahi tratu txarrak ematen direnik, hauek bertze arazo mota batengatik eman daitezke eta (Rivers, 2014).

Adierazleak (Jiménez, M., et al., 2015: 114-141):

- Tratu txar fisikoak:
  - Adierazle fisikoak : zauriak, erredurak, hausturak, moretoiak.
  - Jokabide adierazleak: hitzezkoak edo hitzezkoak ez direnak, barnerakoia, isila, beldurrez adierazten du bere gurasoek jo egin diotela, gurasoren baten izua jasaten du, helduekiko harremana ekiditen du, sobera jantzita, negar egiten du edo oldarkor adierazten da, ez du etxera itzuli nahi.
  - Helduarekin baloratu beharreko adierazleak: gertatutakoa gutxiesten du, ez da adingabeaz arduratzen, aitzakiak jartzen ditu, ez du azalpen sinesgarririk ematen. Kontutan hartu behar diren bertze adierazle batzuk: helduak haurtzaroan tratu txar fisikoa jasan zuen, semearekin erabiltzen duen hezkuntza-estiloa, alkohol edo droga kontsumoa.
- Tratu txar psikologiko edo emozionalen egoeran:
  - Adierazle fisikoak: atzerapena garapen fisikoan, psikologikoan, elkarrekintzan, sozialean eta hizkuntzan, gabezia emozionalak eta gaixotasun psikosomatikoak.
  - Jokabide adierazleak: erreferentziazko irudiarekin eta hauekiko harremanetan pasibotasuna aurkezten du, interakzioak ekiditen ditu, mutismoa, antsietatea, barnerakoitasuna, negatibotasuna, ekimenik eza, hiperaktibitatea, esfinterra kontrolatzeko zailtasunak.

- Helduarekin baloratu beharreko adierazleak: haurrak dituen arazoekiko ez du interesik aiderazten, mugarik ez, hezkuntza-estilo pasibo eta permisiboa, gabezia emozionala, haurra erruduntzat hartzen du, adingabearekin ez du hitzeko harremanik izaten, soilik hura gutxiesteko, exijitzeko edo zerbaitengatik erruduntzat jotzeko.
- Sexu abusua gertatzen denean:
  - Adierazle fisikoak: kardinalak, urratuak, ibiltzeko eta eserita egoteko zailtasunak, arropa zikina eta hautsita, mina eta ondoeza sentitzen du enuresia edo enkopresia duenean.
  - Jokabide-adierazleak: hitzez adierazten du eremu genitalean mina daukala, hitzez adierazten ditu helduen sexu-mezuak, jarrera exhibizionista, hitzez adierazten du sexu-harremanak izan dituela, antsietatea, buruko mina, lo-zailtasunak, bere gorputza eta helduarena gutxiesten ditu, eta gela batean heldu batekin bakarrik gelditzeko beldurra du.
  - Helduarekin baloratu beharreko adierazleak: haurra bertze heldu batzuekin harremanetan jartzen denean jeloskortasuna adierazten du, bikote-harremanean zailtasunak ditu, baliteke haurtzaroan sexu-abusua jasan izana, alkohol edo droga gehiegi hartzen dituela, gehiegizko babesia adierazten du haurrarekiko, adin txikikoa sexu-izaerako portaerak hitzez esatera edo birsortzera bultzatzen du.
- Zabarkeria edo abandonua, axolagabekeria:
  - Adierazle fisikoak: atzerapena garapen fisiko, psikologiko eta akademikoan, norberaren higiearen, jantzien eta elikaduraren urritasuna, tratatu gabeko gaixotasun arinak, pediatriako kontsultarik eza, istripu larrietako larrialdietara bisitak, mugarik eza, ikuskapenik eza, zauriak, urradurak eta lesio jarraituak.
  - Jokabide-adierazleak: absentismoa, lo-falta, apatia, pasibotasuna, ikasteko interesik gabe, oldarkortasuna, istorio fantastiko eta inkoherenteak, jokabide negatiboak eta disruptiboak, ez die kasurik egiten jarraibideei ezta irudi profesionalei (irakasleak adibidez), etxean bakarrik egoten dela adierazten du inoren laguntzarik gabe, eta ezagutza- eta harreman-arazoak.
  - Helduarekin baloratu beharreko adierazleak: haurtzaroan axolagabekeria jasan zuen, gaixotasun mental baten ondorioz ezgaitasuna du, ezgaitasun edo eritasun kronikoa, guraso bakarreko familia, gizarte-hezkuntza maila txikia, alkoholaren edo drogen arazo eta abusua, portaera pasiboa eta apatikoa, etxean ez dago araurik, ordutegirik, zereginik, ohiturarik, ez eta adingabearen ikuskapenik ere.

### **3.2.4 Marrazkien analisia detekzio tresna gisa**

Marrazkia arras baliabide baliotsua da pertsonen inguruko informazioa eskuratzeko, froga proiektibo bat den aldetik, pertsonaren alderdi inkontzientean dagoena plazaratzen baitu. Hori dena aztertzeko asmoz, haur eta nerabeen ingurukoa aztertuko da. Montoyak (2017) adierazten duen bezala, marrazkiak esanahi bat proiektatzen du eta interpretazio bat eskaintzen digu, kontzienteki egiten dena, norabaiti zerbait jakinarazteko. Ohikoa da haurren marrazkiak irudimenarekin, fantasiarekin eta sentimenduekin lotzea, eta prozesu kognitiboetatik, pentsamendu arrazionaletik eta subjektuek bertzeekin komunikatzeko duten intentziotetaik bereiztea.

Haurrek, haien marrazkietan, eguneroko bizipenak adierazten dituzte, baita bertzeekiko dituzten elkarrekintzak ere, era honetan, haien nortasunaren ezaugarri batzuk edo une horretan bizi dituzten egoera emozionalak antzemateko aukera eskaintzen digutelarik (Familia, d.g.). Adin txikikoak ulertzeko, marrazkia ezinbertzeko tresna bihurtzen da, hauek oraindik idazteko gaitasuna garatu ez dutelako eta hitz egiteko edo haien barne pentsamenduak hitzez adierazteko gai ez direlako.

Marrazkien interpretazioa detekzio goiztarrerako teknika aproposa da, baina kontutan hartu beharra dugu marrazkiaren bitartez jasotzen ditugun datuak laguntzen digutela jakiten ea haurrak arazoak dituen edo ez, kontutan izanik ez direla behin betikoak eta haurren marrazkien interpretazioa ezin dela modu isolatuan egin, datu-multzo zabalago baten zati gisa baizik (Familia, d.g.). Marrazkien bitartez jasotzen diren datuak, gure behaketan jasotako datuen osagarriak izan daitezke.

Brahmek (2007) adierazten duen bezala, teknika honen sortzaileetako bat Elizabeth Koppitz izan zen, honek giza irudiaren marrazkia, gaztelaniaz “el Dibujo de la Figura Humana”, aztertu, estandarizatu eta deskribatu zuen 1968. urtean proiektu- eta garapen-proba gisa. Hau da, estandarizazioa edo normalizazioa, prozedurak, irizpideak eta erregelak ezartzen dituen mekanismo eta prozesuen multzoa da, honi esker marrazkiaren bitartez jasotako datuak koordinatu, erregulatu eta kontrolatu egiteko aukera ematen du, ekintza guztietan gauzak egiteko modu komun, finko eta zuzen bat ezarriz (Estandarizazioa edo normalizazioa (antolakuntza), d.g.). Test hau maila pedagogikoan ezagunenetakoa eta erabilienetakoa bat da, bertze test batzuekin batera, hala nola, familiaren testa, etxearen testa eta zuhaitzaren testa (Educapeques, 2019).

Beraz, marrazkien analisia, haurrek egindako irudiak aztertzean datza, bertan topa ditzazkegun elementuak aztertuz (giza irudia, zuhaitzak, etxea, koloreak, trazuak, e.a.) eta haien adin kronologikoarekin bat egiten duten marrazkien etapa kontutan hartuz. Jarraian Lowenfel eta Lamberten (1980) teorian oinarrituta, Haur Hezkuntza eta Bigarren Derrigorrezko Hezkuntza bitarteko etapak azalduko dira, hau da, 2 urtetik 14 urte bitarte, garai hauetan ematen diren etapak bortz dira:

Zirriborro etapa, aurre eskematikoa, eskematikoa, errealista eta pseudoanalista (Nelida, 2017) (Duque, 2017). Jarraian etapa horien informazio osatuago bat eskaintzen da.

- Zirriborroaren etapa, bi eta lau urtera bitarte ematen da, nahiz eta lehen adierazpen plastikoa hemezortzi hilabetera agertu, maila psikomotor eta kognitiboan egindako aurrerapena dela eta. Marrazki horiek formak, irudiak edo objektuak irudikatzeko asmorik eta gaitasunik gabe egin ohi dira, baina haien afektibitateari eta izaerari buruzko xehetasunak eman diezazkigukete (Llort, d.g.) (Duque, 2017). Zirriborroaren etapa hau hiru mota ezberdinetan sailkatu ohi ditu Lowenfeldek (1980) (Duque, 2017).
  - Zirriborro desordenatua, bi eta hiru urte bitartean. Etapa honetan, haurrek trazu simple batzuk egiten dituzte, batzuetan zentzurik gabeak, ez dituzte beren mugimenduak kontrolatzen, desordenatuak eta baldarrak dira, denbora pasa gisa hartzen dute eta gozatzen dute.
  - Zirriborro kontrolatua, hiru urtetik hiru urte eta erdira. Haurrek koordinazio handia dute eskuaren eta ikusmenaren artean, haien mugimenduak kontrolatuagoak dira, ikusmenaren eta mugimenaren arteko lotura hasten da, haien marrazkiak errealitatera hurbiltzen dira eta zirkuluak kopiatzeko gai dira.
  - Izena duten zirriborroak, hiru urte eta erditik lau urtera. Etapa honetan, haurrek beren sentimenduak eta emozioak adierazten dituzte marrazkiaren bidez, haurrak izena ematen die zirriborroei, haien erranahia erreala da, marrazkiak asmo bat du, komunikazio- eta irudikapen-bide bihurtzen da, sormena hasten da.
- Etapa aurre eskematikoa, lau eta zazpi urte bitarte ematen da. Lau urterekin marrazkiaren bertze metodo bat hasi egiten dute, Lowenfeld eta Lambertek (1980) "ospearen sorkuntza kontzientea" deitzen diotena. Une horretatik aurrera, haurrak haien marrazkietan kanpo munduko irudi eta objektuen irudikapenak garatzen hasten dira, beraz, etapa hori arras garrantzitsua da haientzat. Etapa hau komunikazioaren hasiera da, haurrek, hitzezko komunikazioaz gain, berak sortzen dituen irudietan oinarritutako komunikazioa hasten baitute.
- Etapa eskematikoa, zazpi eta bederatzire urte bitarte ematen da. Esperientzien ondorioz, haurrak gizakiaren eta haren inguruaren kontzeptu definitu bat eratzen du. Etapa honi eskematikoa deitzen zaio haurrak objektu batekiko kontzeptua garatu eta etengabe errepikatu egiten duelako bere marrazkietan, hau ez da aldatuko eragina duen esperientzia intentzionalik ez dagoen bitartean.

- Etapa errealista, bederatzi eta hamabi urte bitarte ematen da. Bederatzi urterekin, etapa eskematikoaren amaierara edo errealismoaren hasierara hurbiltzen dira haurrak. Garai honetan ezagutza-, ikaskuntza-, emozio- eta gizarte-aldaketen egoeran murgilduta daude. Etapa honi "koadrilako adina" ere erraten zaio, izan ere, haurra gizarteko kide dela ohartarazi egiten delako. Etapa honetan, haurra ingurunearen eta inguruko errealitatearen behatzaile bihurtzen da, hala ere, haien behaketa eta esperientziak baldintzatzen dituzte beren marrazkiak. Ondorioz, forma geometrikoak erabiltzeari utzi egiten diote eta haien lanetan errealismoa eta detaileak bilatzen dituzte, aurreko etapan baino irudi estatikoagoak egiten dituzte, hirugarren dimentsioa irudikatzen saiatzen dira, berezkotasuna alde batera uzten dute eta etengabe ezabatzeko beharra dute.
- Etapa pseudoanalista, hamabi eta hamalau urte bitarte ematen da. Marrazkiarekiko harremana behin betiko aldatzen da. Oso kritiko bihurtzen dira beren produkzioetan eta, beren lanarekin identifikatuta sentitzen ez badira, baztertu egiten dituzte, garrantzitsuena azken lana izanik eta ez hori lortzeko egindako esfortzua edo eskainitako denbora eta egindako lana. Fase honetan, ekoizpen grafikoetan zentzumenen aurrean dauden erreakzioak bereizten dira. Ezaugarri horrek bi marrazki-sortzaile mota zehazten ditu: bisualak (kolorea, argia eta perspektiba funtsezko baliabideak dira), eta emozionalak (esperientzia emozionalak irudikatzea interesatzen zaie).

Lehen aipatu bezala, marrazkien etapak zeintzuk diren ezagutzeaz eta kontutan hartzeaz gain, garrantzitsuak dira haurraren lan egiteko modua, baita marrazkian topa ditzazkegun elementuak aztertzea, hauek guztiak adierazleak dira, zerbaiten bilakaera eta egoera zehazteko jasotzen eta eratzen den informazioa (Adierazleak (adierazle ekonomikoak), d.g.). Honekin erran nahi da indikadoreen bitartez hainbat informazio jaso dezakegula. Marrazkien analisisian adierazle orokor batzuk antzematen dira eta, hauek behatu eta aztertzearen bitartez, jakin daiteke ea haurrak behar edo zailtasunik daukan, bai arlo afektibo, sozial, kognitibo, psikomotor edo komunikatiboan. Indikadore orokorrak kontutan hartuta, hauen xehetasun edo zehaztasunetik informazio zehatzagoa eskuratu daiteke. Hau da, marrazkien analisisian haurraren lan egiteko modua aztertzetik, irudian antzematen diren xehetasunak aztertuz. Beraz, jarraian, alde batetik, marrazkiak egiteko moduan kontutan hartu beharreko adierazleak azalduko dira, ondoren marrazkien xehetasun orokorrak (ikusi 8.taula) eta azkenik tratu txarrak pairatzen dituzten haurren marrazkietan antzematen diren ezaugarri zehatzak (ikusi 9. taulatik 12. taulara). Aipatu beharra da, adierazle bat antzemateagatik ez duela zertan beharren bat edo tratu txarrak pairatu behar.

Jarraian, haurrak marrazkiak egiteko moduan kontutan hartu beharreko adierazleak azalduko dira (Interpretar el dibujo infantil, 2022) (Llort, d.g).




- Arkatza hartzeko modua. Modu behartuan edo indarrarekin hartzen badu, tentsio-adierazle bat izan daiteke. Leun hartzen badu, haurra erlaxatuta eta lasai dagoela adierazten digu.
- Begirada eta jarrera. Marrazkia egiterakoan adi dago edo, bertzerik gabe, arkatzarekin mugimenduak egitera mugatzen den egiaztatu behar dugu.
- Erabiltzen duen espazioa. Oro har, espazio osoa hartzen badu, konfiantzarekin, segurtasunarekin eta ingurunea aztertze gogoarekin lotzen da; aldiz, okupatutako espazioa murrizten bada, kontrako noranzkoan interpretatuko da: lotsa, uzkurdura, barnerakoitasuna.
- Trazuaren ezaugarriak. Trazu edo marra sendo, seguru eta egonkor batek mugimenduen erraztasuna, esploratzeko eta esperimentatzeko gogoia adierazten du. Marra gehiegizko presioarekin edo abiadurarekin egiten bada, oldarkortasuna edo kontrol falta adieraz dezake.
- Forma. Lehenengo zirriborroen etapa igaro ondoren, izkinatik izkinara marraztutako lerro zuzen luzeak, bereziki goranzkoak, kanpoarekiko nolabaiteko oldarkortasunaren edo bulkada-kontrolaren adierazle izan daitezke. Forma izurtuak edo biribilduak nagusitzen diren trazuak beren burua kontrolatzen duten eta, agian, atxikimendu-irudiekin konplizitate afektibo handiagoa duten haurrei dagozkie.
- Marrazkiaren egoera. Marrazkiaren kokapena orrian, informazio bat edo bertze ematen digu. Orriaren erdigunean marrazten badu, uneko unea adierazten du, eta ez luke kezkarik edo segurtasunik eza erakutsiko. Ezkerreko aldea, lehenaldia adierazten du, iragana. Zoriontsu edo kezkatzen dion zerbait adierazi dezakete. Eskuineko aldea, etorkizuna. Goiko aldeak alde intelektuala, irudimena eta jakin-mina adierazten du. Behealdeak berriz, behar materialak.
- Koloreak. Kolore aunitz erabiltzen baditu, haur alaiak, bitxiak, adierazkorak eta seguruak izaten dira. Marrazkietan beti kolore bera erabiltzen badute, segurtasunik eza eta konfiantza falta gerta daitezke. Koloreak nahasteak, bata bertzearen gainean margotuz, suminkortasunaren adierazle izan daiteke. Kontuan hartu behar da kolorearen aukeraketa arkatzaren eskuragarritasunaren, tamainaren edo formaren arabera baina ez izan daitekeela.

Marrazkiak egiteko modua aztertu ondoren, kontutan izan behar da marrazkian antzeman daitezkeen adierazle zehatzak, hau da, adierazle grafiko zehatz batzuk erlazioa daukatela ezaugarri psikologiko batzuekin (ikusi 8.taula).



## 8. Taula


Ezaugarri psikologikoak eta haien adierazpena marrazkian

Ezaugarri Psikologikoak	Adierazle grafikoak
<p>Oldarkortasuna, desobedientzia</p> 	<p>Hortz nabarmenak adierazten dituzte giza irudietan. Beso luzeak, eskuak itxita. Atzaparrak hatzen orde. Marra zuzen oso luzeak dituzten formak, goranzko noranzkoan. Gorputz-adarren asimetria nabarmena, pertsonak irudikatzen direnean. Zenbaki, letra, zeinu edo objektu errepikatuak marraztea, goranzko progresio bati jarraituz.</p>
<p>Beldurra, antsietatea</p> 	<p>Beldurra marrazkian agertzen dira grafismo txiki eta simple baten bidez. Haurrak bere giza irudia etxe, ibilgailu eta abarren barruan marrazten duenean kanpoko munduaren eta haren mamuen aurrean babesaren beharra adierazten du. Aurpegieta adierazkortasun gutxi. Pertsona jakin batenganako beldurra bada, beso laburrekin edo haiek gabe irudikatuko du. Antsietatea aurpegi itzalean islatzen da, eta arras nabarmena da 5-12 urte bitartean.</p>
<p>Ikaskuntzarako eskolarako motibazioa</p> 	<p>eta Xehetasun batzuekin aberastutako marrazkiak. Aurpegiak begi handiekin irudikatzen dira, adierazpena aurkezten dute marrazkiek, lepoa presente egon ohi da. Marrazkia nahiko zentratuta eta paperaren zati handi bat hartzen du. Besoak zabalik eta zangoak ondo definituta. Aurpegi irribarretsua, aparteko elementuak, hala nola animalia txikiak (barraskiloak, tximeletak...).</p>
<p>Egozentrismoa</p> 	<p>Buru handia, neurritz kanpoko formak. Familia baten edo hainbat pertsonaren marrazkia egiten dutenean, haurrak bere irudia lehendabizi marrazten du eta gainerakoak baino nabarmen handiagoa agertzen da.</p>
<p>Portaera eta pentsamendu obsesiboak</p>	<p>Marrazkia antzeko metodo batekin egiten da beti, erritmo edo kolore berari jarraituz. Marrazki landu horrek antsietate handia</p>



sortzen dio haurrari, nahastu egiten bada edo ongi geratu ez dela uste badu. Maiz ezabatzeko beharra. Trazadura simple oso errepikakorrak adimen-minusbaliotasunarekin lotuta egon daitezke.

#### Segurtasunik eza



Beso eta esku txikiak eta/edo gorputzari itsatsita. Hanka meheak edo ezegonkorak. Marra irregularra, segurtasunik gabea, akatsak maiz zuzentzen dituzte. Irudi konprimituak edo txikiak. Irudia 15º-an edo gehiagotan okertzea.

#### Pertseberantzia



Ondo inguratutako irudiak. Xehetasunen aberastasuna. Pertsonaiak aurpegi espresiboarekin eta elementu guztiekin agertzen dira. Ongi definitutako ilea. Kolorea erabiliz gero, marrazkiaren zati handi bat bete da. Trazu lasaia, ez arras oldarkorra. Arreta ona.

#### Arreta mantentzeko zailtasuna. Oldarkortasuna



Antolatu gabeko marrazkia. Normalean, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da marrazki global bat egituratzeko gaitasuna. Haurrak nahiago du loturarik gabeko objektu txikiak marraztu, hainbat gai eta formatakoak. Definizio gutxi, xehetasunen pobrezia. Objektu irrealak edo distortsionatuak. Arreta mantentzeko zailtasuna eta oldarkortasuna bat datozenean, marrazkia tentsio-deskarga bat bihurtzen da atsegin-jarduera bat izan baino. Haurrak bere intereseko elementuak baino ez ditu marraztuko eta paper guztia gaizki antolatutako forma gutxirekin okupatzera joko du.

#### Lateralitate gurutzatua



Lateralitate gurutzatua alderantzizko forma duten irudi, letra edo zenbakien presentziaren bidez adieraziko da (ispiluan islatzen diren bezala). Marrazkiaren marra irregularra izanen da, forma distortsionatuekin.

**Autokontrola**

Simetria adieraziko da marrazkian. Forma ondulatuak, ondo proportzionatuak. Marrazkia koloreztatuta badago, ez dira marretatik aterako.

**Autoestimua**

Espazioaren antolaketa ona. Besoak eta eskuak irekita. Irudiaren tamainua handia da. Marrazkiak paperaren ia espazio osoa hartzen du, banaketa egokiarekin. Aurpegietako adierazpen positiboa, irudi bat baino gehiago agertzen direnean.

**Harreman sozialeko edo berdineko arazoak**

Besoak gorputzari itsatsita, adierazpen neutroa edo tristea. Irudia izan daiteke handia edo txikia, haurrak bizi duenaren arabera. Handia, egoera norberarenganako eraso gisa bizi denean eta aurre egin behar zaionean. Txikia, sentimendua defentsa-gabezia, beldurra edo ezintasuna denean.

**Adimen ezgaitasuna**

Funtsezko ezaugarria pobrezia eta xehetasunen aldakortasun txikia da. Haurren maila kognitiboaren arabera, giza irudi baten marrazkia egin dezake, baina ezin izango du aldaketa esanguratsurik egin, adibidez, gizon bat eta emakume bat bereizteko. Gorputz-adarretako asimetria eta/edo zatiak gutxi integratzea.

*Oharra:* taula honetan aurkitzen dira Ezaugarri psikologikoak eta haien adierazpena marrazkian. *Rasgos psicológicos y su expresión en el dibujo* taulatik egokitua, Sergi Banús Llord, 2018, Psicodiagnosis: Psicología infantil y juvenil. Webgunea <https://www.psicodiagnosis.es/areaespecializada/instrumentosdeevaluacion/eldibujoinfantilysusignificadopsicologico/index.php?s=aommertshrg4imiureqnb4r925>

Ezaugarri psikologikoak eta haien adierazpenak marrazkian kontutan harturik, tratu txarrak eta abusu sexualak pairatzen dituzten haurren marrazkietan aurkitzen diren adierazleak ere badaude (ikusi 9.taulatik 12.taularaino).

**9.Taula**

## Giza irudia

Begirik ez izatea.



Ikusi nahi izan ez duen zerbait ikusi duela adieraz dezake; aldi berean, adierazi ahal digu, haurrak sentitzen duela bere amak (edo begirik gabe, begiak hutsi edo begi - ninirik gabe margotu duen pertsonaia) ez duela oraindik habusuzko egoera hauteman. "Familiako itsutasunaren" berri eman du. <sup>b</sup>

Sudurrik ez izatea.



Sudurra sinbolo falikoa denez, sudurrik ez izatea (edo arras nabaria den sudurraren marrazkia) sexu-arazo bat ager daiteke. <sup>b</sup>

Ahorik ez izatea.



Inguruarekiko inkomunikazio-arazo bat sinbolizatzen du, eta egoera hori ohikoa da abusatutako haurrengan. <sup>b</sup>

Irribarre maniakoa.



Ukazioa. Mania. <sup>a</sup>

Lepo luzea, bikoitza, irudi zatitua.



Disoziazio-adierazleak dira (lepo luzea 8 urtetik aurrera bakarrik balio du). <sup>a</sup>

Besorik edo eskurik ez izatea.



Lotsa, desegokitasuna eta errua. Errealitatean eragiteko baliabiderik eza. Komunikazio-arazoak (6 urtetik aurrera balio du). Ukipen afektibo eta/edo sexualaren aurrean larritasuna adierazten du. <sup>a</sup>

Hankarik eza.




Inpotentzia sentimendua adierazten du, mugiezina dela eta abusuzko egoeratik ihes egiteko gai sentitzen ez dela. <sup>a</sup>

Oinen edo oinetakoen tratamendu berezia.



Oinak ere sinbolo falikoa dira eta horrelakorik ez izateak edo nabarmenduta egoteak erlazionatua egon daiteke egoera sexual larri, mingarri batekin. <sup>b</sup>

Besoak eta hankak gorputzari itsatsita.



Errepresio emozional eta sexualaren adierazle dira. <sup>b</sup>

Distortsioak gorputz eskeman.



Abusatutako haurrek beren eskemaren eta gorputz-irudiaren distortsioak izaten dituzte, eta hori beren produkzio grafikoetan islatzen da, adibidez, binaka moztuta edo lerro banatzaile batek zeharkatuta daudela ematen duten giza irudiak marrazten dituztenean. Ohikoa da, halaber, gorputzaren zatiren bat handiegia dela ikustea, hala nola eskuak, besoak eta abar. <sup>b</sup>

Pertsonaien adierazpena.



Marraztutako pertsonaien aurpegiek edo gorputzek izua, nazka, haserrea, beldurra, hutsunea islatzen dutenean; hau autorearen barne-egoeren adierazle bat da. <sup>b</sup>

Gorputz zurruntasuna.



Itxita egotearen sentrazioa, isolatu egiten da mundutik babesteko. Despertsonalizazioa. Desegokitzapena. Askatasun falta. <sup>b</sup>


Itzalak eremu genitaletan.



Aunitzetan, itzalak tatxoi gisa hautematen dira; bertze batzuetan, aldiz, ez da hain nabarmena, eta zoriz egindako marka gisa pasatzen dira margotze-prozesuan. Norberaren sexualitatearen edo egin dituen pertsonaietako baten sexualitatearen aurrean larritasuna adierazten dute beti. <sup>b</sup>

---

Eremu genitalik ez izatea.



Batzuetan, ez da pelbisaren eta eremu genitalaren zatia egiten, eta, hala, bi hankak pertsonaiaren enberrari itsatsita geratzen direla dirudi. Horrek, aurreko puntuan bezala, sexualitatearen aurrean larritasuna islatzen du. <sup>b</sup>

---

Ugaltze-eremuan markak dituzten familiako pertsonaiak.



Abusatzailearen identitatea edo haurra nolabait kezkatzen duen sexualitatea duen irudi bat ere islatzen dute. <sup>b</sup>

---

Familiako pertsonaiak objektu faltikoei eusten.

Abusatzailearen identitatea edo haurrak oldarkor gisa bizi duen irudi bat islatzen ari dira. <sup>b</sup>

---

Ezabatutako familiako pertsonaia.

Abusatzaile horren nortasuna islatzen ari dira. <sup>b</sup>

---

*Oharra. a* Colombo, Beigbeder, & Barilari (2013), *b* Müller & Lopez (2011).

**10. Taula**

## Etxea

Etxeak erortzen edo seguruak ez direla irudikatzen denan.



Paretak erortzear daudela ematen duten etxeak marraztea haurraren erorketa psikiko potentzialaren adierazle da, edo segurtasunik eza eta familiaren sostengu eskasaren adierazle, eta hori da abusatutako haurren bertze faktore bat.

Tximini aunitz.



Tximiniak sinbolo falikoak dira, eta ohikoa da ikustea abusatutako haurrek horietako batzuk marrazten dituztela etxeen marrazkietan.

Kearen tratamendu berezia.



Aunitzetan, kea hain da trinkoa eta iluna, etxeak su hartzen ari dela ematen baitu. Horrek etxean gerta daitezkeen arazo larriak sinbolizatzen ditu.

Aterik edo leihorik ez izatea.



Familiaren arteko inkomunikazioa edo ezaugarri endogamikoak dituzten familiak sinbolizatzen du, inzestua ematen den horietan.

Leihoak burdin sare nabarmenduekin.



Familiaren eta kanpoaldearen arteko inkomunikazioa sinbolizatzen du. Interpretazioa aurreko puntuaren antzekoa da.

*Oharra.* Müller & Lopez (2011).

**11. Taula**

## Zuhaitza

Zuhaitzaren  
enborreko  
markak.



Kasu gehienetan, guztietan ez errateagatik, traumen adierazleak izaten dira.

Ebakitako edo /  
eta eroritako  
adarrak.



Trauma eta zikiratze-bizipenen adierazleak ere badira. Zikiratzearen bizipen traumatikoen eta depresioaren adierazleak dira.

Kopa zuritua edo  
erortzear.



Depresio-egoeraren eta/edo erorketa psikiko potentzialaren adierazlea da.

Zomorroak.



Zomorroak marrazten dituztenean (armiarmak, labezomorroak, zorriak eta abar) gehiegizko gertaera bati erreferentzia egin diezaioke; izan ere, pertsona batetik gora igo daitezke lotan dagoela, baina ezin dira konturatu.

Objektu falikoak  
(bengalak).

Abusatutako haurretan eiakulazioa sinbolizatzen dute.

Forma falikoak  
dituzten  
animaliak.

Errepresiorik gabeko senak sinbolizatzen dituzte (animalia marraztu duenaren ondoan begiratu behar da).



**12. Taula**

## Atmosfera

Lerro etena eta angeluan.	Gehiegizko erreakzio emozionala. Hipermotibitatea. Oldarkortasuna. <sup>a</sup>
Gainjarritako irudiak.	Aunitzetan ikusten da irudiaren gorputzaren zati bat, abusatzailea irudikatzen duena (animalia batek sinbolizatuta egon daitekeena), biktimaren irudiari itsatsita geratzen dela edo honen gainean. <sup>b</sup>
Irudi gardenak.	Batzuetan, haurrek gaizki ezabatzen dute marraztu duten gauzaren bat edo pertsonaiaren bat, eta, beraz, “irudi fantasmagoriko” moduko bat geratzen da, eta —mamu baten antzera— haiek bizi duten zerbait islatu bertzerik ez lukete egingo, horrek dakarren arriskuaz inor ohartu gabe. <sup>b</sup>
Beheko ezkerreko kokapena.	Primarioa, traumatikoa, ebatzi gabe dagoena adierazten du. Zehatzarekin bat egiten dut. Irudimen falta. <sup>a</sup>
Euri jasa.	Presio handiko egoera da, estresagarria, itogarria. Izpiekin eta euri sektorizatuarekin homologatzen da. <sup>a</sup>
Aterkirik (marrazkian adierazi denean).	eza Defentsarik eza. Defentsa-gabeziaren sentimendua. <sup>a</sup> euria
Hodei presentzia.	lodian Joera autoagresiboak eta min somatikoak dira. <sup>a</sup>
Sostengu lerrorik eza.	Tratu txarren ondorioz marrazkiaren garapen ebolutiboan atzerapen bat egon delako gerta daiteke; halaber, haur horiek airean sentitzeko duten esperientziaren adierazgarri da, inork sostengatu gabe (6 urtetik aurrera balio du). <sup>a</sup>
Ingurunerik eza.	Barne-baliabideen pobrezia, ingurunea ez estimulatzea. <sup>a</sup>
Zurruntasuna trazuan.	Defentsa egokiak eta eraginkorrak erabiltzeko ezintasunarekin lotzen da. <sup>a</sup>

Dimentsio txikia.	Balio-galtzea, zapaltzea, desegokitasun sentimendua, erretratua, entzierro-sentsazioa, bere buruaren pertzepzio desegokia. Ingurunearekiko harremanez arduratzea. <sup>a</sup>
Kolore ilunak.	Batzuetan, marrazkia kolore argitsuekin margotzen hasten da, eta, pixkanaka-pixkanaka, geruzaz geruza kolore ilunagoetara gehitzen da, eta orban ilun bihurtzen da, zapalkuntza, tristura, depresioa, larritasuna adierazten duen irudia. <sup>b</sup>
Irudi faltikoak.	Nahiz eta biktimek beti zakilak marrazten ez dituzten, aukera aunitzetan irudi faliko desberdinak egiten dituzte, eta horietako aunitz itzalean ezkutatuta geratzen dira, edo zuhaitz baten azalean, haizeak islatzen dituen lerroei eta abarri inkontzienteki lotuta. Haur baten marrazkian irudi faltikoak agertzen direnean, berretsi egin behar da hori pubertaroaren jakin-min hutsaren ondorioa den, adibidez, edo haurrari larritu eta bere ingurunetik inposatzen zaion zerbait islatzen ari diren. <sup>b</sup>
Zirriborroak.	Haurrak behin baino gehiagotan ezabatzen duenean pertsonaiaren genitalen inguruan, edo pertsonaia bat gaizki ezabatu eta eszenan agertzen denean, pertsonaia fantasmagorikoa dela irudikatuz, arreta jarri behar da. Oro har, larritasunaren adierazleak dira, edo horiekin zerbait gertatzen da. <sup>b</sup>
Alderantzizko eguzkiak.	Ohikoa da abusatua izandako umeen marrazkietan alderantzizko eguzkiak agertzea (hau da, aurpegia okertuta edo bertze aldera begira dutela), edo orban beltzez margotuak, betaurrekoekin, begizko keinuekin edo gaiztakeriarekin, adibidez. Eguzkiak autoritatea edo aita sinbolikoki irudikatzen duelako gertatzen da hori, eta abusatzailea aita (edo irudi adierazgarria) denean, haurrak sentitzen du autoritate figura "alderantziz jokatzen ari dela". <sup>b</sup>
Marrazki osoaren sentsazio txarra.	Ohikoa da, halaber, arazo hauek pairatzen (abuso sexuala, tratu txarrak) duten haurren marrazkietan hutsunearen, haserrearen, depresioaren, larritasuna eta izuaren sentsazioa islatzea. Horrek egoera traumatikoen ondorio den egoera psikiko eta emozionala erakutsi bertzerik ez du egiten. <sup>b</sup>

---

Marrazkiaren ebolutiboko erregresioa.	estadio Batzuetan, haur adimentsuak bat-batean modu baldarrean marrazten hasten direla ikus daiteke, hankak, besoak, behatzak eta abar, dimentsio bakarreko lerroen bitartez irudikatuz. Oro har, haurrak aurreko estadio batera egiten du erregresioa, txikiagoa zenean eta oraindik abusatua izaten ari ez zenean. <sup>b</sup>
---------------------------------------	---

---

Sinadura ezabatuak.	Beren izena gaizki idatzi dutela argudiatuz, hau ezabatu egiten dute. Aunitzetan, bere lanen batean bere izena jartzean, behin baino gehiagotan sinatu eta ezabatu dutela ikus daiteke. Horrek lotura zuzena du identitate-arazo batekin eta autoestimu baxuarekin, aunitzetan data luzeko abusuzko egoera baten ondorio baita. <sup>b</sup>
---------------------	--

---

Aldaketak sinaduran.	Ikus daitekeen bertze gauza bat da beren marrazkiak amaren abizena erabiliz sinatzen dutela, aitarena erabili ordez. Hori, zalantzarik gabe, aitaren irudiarekin izandako gatazkaren ondorioa da. <sup>b</sup>
----------------------	--

---

Atmosfera.	Ohikoa da haur abusatuetan, emozio-giro gatazkatsua islatzen duten sinboloak behin eta berriz marraztea, hala nola izpiak, trumoiak, ekaitza, euria, haizea. <sup>b</sup>
------------	---

---

Irudi zatikatuak edo zatituak.	Oro har, hurrek horrelako marrazkiak egiten dituztenean erraten dute ikusi duten pelikularen baten eszena marrazten ari direla. Hala ere, eszena horiek marrazki batean baino gehiagotan errepikatzen direnean, arreta jarri behar da; izan ere, larritasun izugarria izan dezakete, abusatzailearen heriotza-mehatxuen ondorioz. <sup>b</sup>
--------------------------------	--

---

*Oharra.* *a* Colombo, Beigbeder, & Barilari (2013), *b* Müller & Lopez (2011).

### **3.2.5 Hezkuntza arloko esku-hartze protokoloa**

Protokoloa jarduketa prozesu baten sekuentzia zehatza da, egoera baten aurrean jarraitu beharreko pausuak azaltzen dituen (Asale, d.g.). Pertsona batek aurkezten dituen arazoaren aurrean, ebaluazio eta tratamendu prozesuan, esku-hartzea ematen da. Honetan, urrats ezberdinak jarraitzen dira, hala nola (Arturo, 2009):

- Hasierako kontaktua eta arazoaren azterketa egiten da.
- Azalpen-hipotesiak formulatu eta kontrastatu.
- Helburuak ezarri.
- Tratamendua diseinatu.
- Tratamenduaren aplikazioa eta ebaluazioa.
- Tratatu eta amaitu ondorengo ebaluazioa.
- Jarraipena.

Tratu txar egoerak detektatzeko eta esku-hartu ahal izateko, Nafarroako Gobernuak *II. Nafarroako Foru Komunitateko Haurren Babeseko Prozeduraren Eskuliburua* (2019) izeneko gida bat egin du, Nafarroako familien, haurren eta nerabeen errealitateari buruzko diagnostiko sozialean bildutako ekarpenetatik sortzen den dokumentuan oinarrituz (2017). Eskuliburu hau sei bolumenetan bereizi egiten da:

- II. Nafarroako Foru Komunitateko Haurren Babesaren esparruko prozeduraren eskuliburua.
- Nafarroako Foru Komunitateko Oinarrizko Osasun Laguntzako Gizarte Zerbitzuen haurren babeseko egoeretan jarduteko gida.
- Nafarroako Foru Komunitateko haurren babes gabezia baloratzeko tresna.
- Helburu orokorren eta berariazkoen multzoa.
- Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Sistemarako haurren babes egoeretan jarduteko gida.
- Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Sistemari haurrak babesteko egoeretan jarduteko gida.

Nafarroako Autonomia Agentziako Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordeak (2019) adierazten duen bezala, komunitate bateko adingabeen zaintza eta ongizatea kide guztien erantzukizuna da. Bereziki, gurasoena, zaintza edo tutoretza duten pertsonena, eta modu subsidiarioan berriz, haur eta nerabeekin harreman zuzena duten profesionalena (hezkuntza eta osasuna) eta gizarte-zerbitzuetako profesionalena. Beraz, ezinbertzekoa da jakitea zeintzuk diren adierazleak, zeinak adingabeko bat egoera ahulean edo babesik gabe dagoen aurreikusten lagunuduko digu.

Zainketan ematen diren gabeziak familiaren intimitatean gertatzen dira, eta zaintza hori arakatzea intimitatean sartzea edo zainketa-figurekiko errespetu falta dela uste da, honek arazoa hautematea zaildu egiten duelarik. Horri gehitu behar zaio adingabeek, oro har, ez dutela gaitasunik beren egoera esplizituki jakinarazteko edo laguntza eskatzeko, eta kanpoko agente bat izaten ohi da egoeraz arduratzen dena, normalean familiarik kanpoko.

Detekziorako eta esku-hartzerako unean, ezinbertzekotzat jotzen da departamentuen arteko lan talde egonkorak egotea, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzu arloetako profesionalen osatuak. Talde hauek arduratuko dira haien Nafarroako Komunitateko zonalde edo eremu baldintzatuan prebentzio unibertsaleko jarduketak planifikatzeaz, eremu bakoitzean antzemandako kasuistika edo beharren arabera. Gainera, prebentzio selektiboko baliabideak/esku-hartzeak (txosten-ereduak, sailen arteko mahaiak eta prebentzio-ekintzak) sortzearen sustatzaileak izango dira. Sailen arteko lantalde horiek sortzeak, lankidetzak eta koordinazioa sustatzeaz gain, eremu bakoitzean egiten den lana sakonago ezagutzeko aukera emango du, adingabeen zaintza eta ongizatea sustatzeko.

### 3.2.5.1 Nola detektatu babesgabetasun egoera

Babesgabetasun egoera detektatzeko unean ematen den lehen urratsa behaketa eta informazioa/datuak jasotzea da (Nafarroako Autonomia Agentziako Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordeak, 2019).

- **Behatu** sistematikoki haurraren momentu, une ezberdinak (ikasgelan, atsedendian, bere kanpo-itxura, berdinkideekiko eta helduekiko harremanak, eskolara joatea, familiarekiko kontaktua, harremana, e.a.). Behaketa horren bidez, arrisku edo babesgabetasun egoera bat baloratzeko adierazleak ezagutu ahal izango dira.
- **Informatu zaitetz** adingabearen familia eta gizarte inguruneaz.
- **Adingabeko pertsonarekin hitz egin ezazu.** Elkarrizketa honen helburua gure susmoaren zergatia ulertzen saiatzea da. Arreta jarri beharra dugu haurrak erraten duenari, baita adieratzen ari duena bere jokabidearen bitartez. Haurrak sentitu egiten badu norbaitek entzuten ari diola, errazagoa egingo zaio adieraztea eta ulertua sentitzea.
- **Gurasoekin edo tutoreekin hitz egin**, hauek ezagutzen saiatuz:
  - Familia une zail batetik edo krisi iragankor batetik pasatzen ari den.
  - Egoera zail horretan haurrari laguntza ematen ari dioten.

- Portaera-eredu jakin bat eta hezkuntza-jarraibide argi batzuk ematen ari zaizkion.
- Eguneroko zaintzaz arduratzen diren.
- Ea familiak onartuko lukeen eskolaren eta ardurapean duen adingabearen arteko lankidetzaz.

Familiarekin hitz egitean, haien erreakzioak kontutan hartu behar ditugu, hauei esker jakin ahalko baitugu haiekin nola landu gaia. Lehenengo fase honetan lortzen dugun informazio guztia argi eta zehatz jaso behar dugu.

Lehen urrats honetarako, ezinbertzekoa da hezkuntza arloko profesionalek jakitea zeintzuk diren arrisku faktoreak, baita adierazleak. Batzuetan pentsa dezakegu haur alfer baten aurrean gaudela, oldarkorra dela, traba egiten duela eta batzuetan galdutzat emango dugu. Baina adierazpen horiek alarma-seinale gisa interpretatu behar ditugu, beren bizitzan zerbait gaizki doala adierazten digutelako. Lehen aipatu izan den bezala, horiek, berez, ez dira aski babesik gabeko egoera bat dagoela frogatzeko; gainera, adierazpenen maiztasuna, nola, non eta norekin gertatzen diren ere hartu behar dugu kontuan.

Behin behaketa eta datuak jaso ditugula, bigarren urratsa jakinarazpena egitea da, hau da, edozein pertsona fisiko edo juridikoren eskubide edo interesei eragiten dien erabaki administratiboa jakinaraztea (Rae, d.g).

Informazio bilketa erraztu eta bateratzeko, Nafarroako Gobernuak aurkezten duen jakinarazpen orria erabiltzea proposatzen da. Orri honetan, oro har, adingabearen eta familiaren identifikazio-datuak jasotzen dira, modu labur batean. Bertan hurrengo datuak bilduko direlarik: txostena sortzen duen egoera edo gorabehera azaltzea, tratu txarrak ematen dituen ustezko pertsonaren eta haur edo nerabearen arteko harremana, behatutako edo ezagututako adierazleak zehaztea (fisikoak, portaerazkoak...) eta, azkenik, informazioa ematen duen pertsonaren edo erakundearen datuak.

Jakinazpen-fitxaren bidez, bertze profesional bati jakinarazten zaio ustezko babesgabetasun-egoera baten susmoa dagoela; beraz, dokumentu konfidentzial bat da, eta kasu hori eragin duen pertsonak edo taldeak eta jasotzen duenak baino ezingo dute erabili. Gainera, argitu behar da komeni dela tartean diren familiei horren berri ematea, mehatxupean ez sentitzeko, beren informazioarekin mugimendu gardenak egiteko eta ahal den neurrian laguntzeko.

Dokumentu honetan sarrera-atal bat dago. Bertan, indarrean dagoen legediaren laburpen bat jasotzen da, haurtzaroa sustatu eta zaintzeko printzipioei buruzkoa, bai eta pertsona helduek babesik gabe egon daitezkeen egoerei erantzuteko duten erantzukizunari buruzkoa ere. Datuen babesari buruzko paragrafo labur bat ere erantsi da.

Jakinazpen-fitxa pertsona bakar batek bete beharra du, nahiz eta bertan jasoko den informazioa aldez aurretik bertze profesional batzuekin alderatua izan. Dokumentu honetan zehaztu beharra dugu susmo kolektiboa dela edo ikastetxeko zuzendaritzaren euskarria bilatzen dela. Kasu horietan, jakinarazpen-fitxan azaldutakoaren berri duten pertsona guztiek dokumentua sinatu behar dute fitxa horren amaieran, dagokion laukitxoan.

Informazioa telefonoz transmititzen ahal da. Jakinarazten dena jasota utzi behar da, eta, beraz, ezinbertzekoa da jakinarazpen-fitxa betetzea. Kasu horretan, fitxan bertan adieraziko litzateke jakinarazpenaren prozedura telefonoz egin dela. Bertzalde, taula bakoitzaren azpian, behaketen atal bat dago. Bukatzeko, babesgabetasun-gradienteak eranstean dira, irudi profesionalek kasuak zein mailatan sailkatzen diren jakin dezaten. Hiru maila dira:

- Zaurgarritasuna. Familia-arazoen aurrekariak badaude, edo krisi-, defizit- edo arazo-egoera familian. Egoera horrek eragin negatiboa izan dezake edo nabarmen mugatu dezake guraso-figurek haurrari edo nerabeari zainketa eta arreta egokia emateko duten gaitasuna, eta etorkizun hurbilean babesik gabeko egoerak sor ditzake. Adibidez, estres-maila handia, gurasoen drogen edo alkoholaren kontsumo ez-ezgaitzailea, aitatasun nerabea, gizarte-isolamendua, gurasoen arazo fisiko, mental edo psikologikoak, edo babesik ezaren aurrekariak. Jaio aurreko arrisku egoerak ere sartzen dira.
- Babesgabetasun arina. Gurasoek edo familia barruko pertsona helduek hezkuntza-jarraibide ez egoki batzuk erabiltzen dituztenean haurrarekin. Egoera honek oraindik ez dio kalterik eragin haurrari, baina honek denboran irauten badu, etorkizunean eragin diezaioke.
- Babesgabetasun ertaina, babesgabetasun larria, babesgabetasun arras larria. Asebate gabeko oinarrizko beharrak ditu, bere osasunean eta garapenean kalte nabarmena du. Egoera hori gurasoak babes-betebeharrak betetzeko duen ezintasunaren edo betebeharrak horiek behar bezala ez betetzearen ondorio zuzena da.

Hezkuntza sistemaren jakinarazpena oinarritzko gizarte zerbitzuek jasoko dute. Susmoa egiaztatu eta informazioa zabalduko dute. Hauek, gatazka sortzen den gizarte-ingurunea ezagutzen dute. Gainera, zuzeneko eta berehalako arreta eskaini eta esku hartzeko programak dituzte. Esku hartzen duten kasuetan, erakundearen berezko baliabideak aplikatzen dituzte, edo, beharrezkotzat jotzen denean, Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuetara (Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetza) bideratzen eta orientatzen dituzte.

Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek, haurri edo nerabeari eta haren familiari buruzko erabakia hartu aurretik, jasotzen dituzten datu guztiak berrikusi eta egiaztatuko dituzte, eta informazio gehiago emango dute.

Larrialdi egoera baten aurrean aurkitzen garenean balorazio irizpideak ezberdinak dira. Hau da, gerta daiteke hezkuntza arloko profesionalek adingabe batek premiazko babesa jaso behar duela pentsarazten duten gertakariak edo datuak biltzea.

Egoera hori kasu hauetan bakarrik gertatuko da:


- Adingabearen osasuna edo oinarritzko segurtasuna arriskuan dagoenean.
- Berehalako larritasun-egoera bada.
- Ez dago adingabearen ardura har dezakeen familia-figurarik edo atxikimendu-figurarik.

Faktore horiek biltzen dituen egoera bat planteatzen denean, horren berri eman behar zaie Bigarren Mailako Laguntzako Gizarte Zerbitzuei (Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetza). Kasua bideratzeko, nahikoa da arrazoizko susmo bat izatea.



## 1. Irudia

Larrialdi egoeren arabera baloratzeko irizpideen grafikoa.




*Oharra:* irudi honetan larrialdi egoeraren arabera jarraitu beharreko pausuak azaltzen dira. *Situación de Urgencia: Criterios para su Valoración* iruditik egokitua, Haurren tratu txarren prebentziorako elkarleen federazioa -2023, iturria. Txostena ([Volumen 5. Guía de actuación en las situaciones de Protección Infantil para el Sistema Educativo en la Comunidad Foral de Navarra](#)).

Bertzalde, kontuan izanik larriak diren kasuetan denbora tarte bat dagoela jakinarazpenaren eta erakunde publiko eskudunaren jarduketaren artean, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren arabera. 13. artikulua: *"Pertsona edo agintari orok, eta, bereziki, beren lanbidearen edo eginkizunaren ondorioz adingabe baten arrisku edo babesgabetasun egoera antzematen dutenek, horren berri emango diote hurbilen dauden agintaritzari edo agenteei, behar duen berehalako laguntza emateari kalterik egin gabe."*

Badira sexu abusu edo tratu txar fisiko larria gertatzen den egoeratan jarraitu beharreko urratsak (ikusi 2.irudia). Beraz, ikastetxeak laguntza eman beharko dio.

## 2. Irudia

Sexu abusu edo tratu txar fisiko larria gertatzen den egoeratan jarraitu beharreko urratsen grafikoa.



*Oharra:* Sexu abusu edo tratu txar fisiko larria gertatzen den egoeratan jarraitu beharreko urratsak azaltzen dira. *Pasos a realizar en toda situación urgente de Abuso sexual o maltrato físico grave* iruditik egokitua, Haurren tratu txarren prebentziorako elkartearen federazioa -2023, iturria. Txostena ([Volumen 5. Guía de actuación en las situaciones de Protección Infantil para el Sistema Educativo en la Comunidad Foral de Navarra](#)).

Babes gabezia arras larriko egoera baten aurrean gaudela errango dugu kontakizun eta/edo adierazle fisikoak daudenean, eta aurreko 72 orduetan gertatu denean. Kasu hauetan jarraitu beharreko protokoloa honako hau da:

- Familia barruko abusu sexuala ez denean, edo adingabea familiako senideren batengandik babestua badago, familiari jakinaraziko zaio, aholkularitza eskaini egingo zaio eta tramiteak egiteari buruzko informazioa emango zaio. Esku-hartzen duten sistemekin jarduketak koordinatuko dira.
- Adingabea babestuta ez badago edo familia barruko abusu sexualak eman dira, adingabea osasun-zentrorra eramango dugu, pediatriatik azterketa medikoa egin dezaten. Zentroak erabakiko du Guardiako Epaitegiari auzitegiko mediku baten presentzia eskatzen dioten. Bertzalde, faxez jakinarazi behar zaie Guardiako Epaitegiari eta Adingabeen Fiskaltzari. Aldi

berean, Foruzaingoaren presentzia eska daiteke Osasun Zentrora eramateko eta adingabearen deklarazioa jasotzeko.

- Egitateak larriak badira, Guardiako Epaitegitik erabaki daiteke adingabea Behaketa eta Harrera Zentro batean sartzea eta/edo babes-neurriak ezartzea (ustezko erasotzailea urruntzeko agindua).
- Aldi berean, ospitaleratze hori Fiskaltzaren edo Epaitegiaren bidez egiten ez bada, Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordeak kautelazko neurri bat har dezake, hau da, adingabearen zaintza Larrialdiko Familia batean (0-6 urtetik beherakoak) behin-behinean onartzea edo Behaketa eta Harrera Zentro batean sartzea.

### **3.2.5.2. Protokoloaren balorazioa (AMIA / DAFO)**

Protokoloaren balorazioa egiteko AMIA/ DAFO baliabidea erabili da (*Herramienta DAFO*, d. g.).

*II. Nafarroako Foru Komunitateko Haurren Babeseko Prozeduraren Eskuliburua* izeneko gida, sei bolumenetan bereizi egiten da eta bakoitzak informazio ezberdina ematen du, hala nola: Haurren Babesaren esparruko prozedura, haurren babes gabezia baloratzeko tresna, helburu orokorren eta berriazkoen multzoa eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen baita Hezkuntza eta Osasun sistemaren esku-hartzearen gida. Eskuliburu hauetan informazio anitz eta zehatza ematen da, aukera ematen dute gaiarekiko beharrezkoa den informazioa eskuratzeko, baita departamentu bakoitzaren eginkizuna ezagutzeko. Honetaz gain, arloka banatuak daude, honek informazioa bilatzeko erraztasuna ematen duelarik.

Hezkuntza-sistamarako haurren babes-egoeretan jarduteko gidan tratatu txar motak definitu eta hauen adierazleak zein arrisku eta babes faktoreak azaldu egiten dira, larritasun mailaren arabera mailakatzen direlarik. Bertzetik, tratatu txar kasuen aurrean hezkuntza arloko adituek jarraitu behar duten protokoloa azaltzen da. Honetaz gain, eranskinetan, adingabearekin elkarrizketa burutzeko argibideak esakintzen dira, hauek baliagarriak dira haurraren testigantza ahalik eta zintzoena izan dadin, kutsatua izan gabe, haurra eroso sentitu dadin, e.a. Hala eta guztiz ere, argibide hauek alde aurretik irakurriak izan behar dira, irakasleak ongi ezagutu behar ditu, baita praktikan jartzeko gai izan behar da.

Protokolo honek indarguneak izateaz gain, ahuleziak ere baditu. Alde batetik, indarguneetan aipatutako elkarrizketarako argibideak arras teknikoak dira eta horrelako kasuen aurrean zailak dira guztiak kontutan hartzea. Bertzetik, eskaintzen den informazioa ez da era bisualean aurkezten, hau da, informazio aberasgarria dago, baina testu formatuan idatzita, beraz, azkar batean begiratu nahi

bada tratu txar zehatz baten definizioa eta honen adierazleak, gidaren zein ataletan aurkitzen den begiratu eta, ondoren, tratu txar mota horren informazioa non dagoen bilatu behar da. Gauza berdina gertatzen da esku-hartzearekin larrialdi baten aurrean zein urrats jarraitu behar diren begiratzeko dokumentuan aurkitzen den informazio guztia irakurtzea luzeegia da.

Kanpo faktoreek ere mehatsuak edo aukerak ekarri ditzazkete. Mehatsuei erreparatuz, gerta daiteke profesionalek protokoloaren dokumentua ez irakurtzea edo honen existentziaren berri ez izatea, beraz, ez dute gaiarekiko ezagutzarik izango eta ez dira horrelako kasuak detektatuko edo egoera hauen aurrean esku-hartzerik burutuko. Bertzetik, izan daiteke protokoloa irakurri izana eta gaiarekiko ezagutzak izatea baina egoera baten susmoa izanda ez esku-hartzea, arrazoiak desberdinak izan daitezkeelarik, adibidez beldurra, protokoloa martxan jartzeko norbere burua seguru ez ikustea. Ezadostasunak ere eman daitezke lan taldean bertan, adibidez zuzendariak susmoaren jakinarazpena egin nahi ez izatea eta ondorioz notifikazioa ez egitea eta haurraren ongizatea ez bermatzea.

Bukatzeko, aukerei erreparatuz, gerta daiteke ikastetxean gaian aditua den irakaslea izatea, gida ezagutzea eta kasuen aurrean jarraitu beharreko esku-hartzea ongi ezagutzea, honi esker detekzio goiztiarrak eman daitezke eta irakasle taldean segurtasun handia emango du esku-hartzeko prozesuan. Aunitz lagundu dezake ere departamentu ezberdinetako profesionalak elkar ezagutzea, elkarren artean protokoloa begiratzeko eta bakoitzak haren zein bertze profesionalen eginkizunak argi izatea, honek sare lanean lan egiteko segurtasuna eta konfiantza emango du eta haurraren ongizatea bermatu.

	Barne jatorrikoak	Kanpotik datozenak
N e g a t i b o a k	<p><b>Ahuleziak.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarrizketarako argibideak arras teknikoak.</li> <li>- Eskaintzen den informazioa ez da era bisualean aurkezten.</li> <li>- Larrialdi baten aurrean dokumentuan aurkitzen den informazio guztia irakurtzea luzeegia da.</li> </ul>	<p><b>Mehatsuak.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Profesionalek protokoloaren dokumentua ez irakurtzea.</li> <li>- Protokoloaren existentziaren berri ez izatea.</li> <li>- Protokoloa irakurri izana eta gaiarekiko ezagutzak izatea baina egoera baten susmoa izanda ez esku-hartzea.</li> <li>- Ezadostasunak lan taldean.</li> </ul>
P o s i t i b o a k	<p><b>Indarguneak.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskuliburuan informazio anitz.</li> <li>- Aukera ematen du gaiarekiko beharrezkoa den informazioa eskuratzeko.</li> <li>- Departamentu bakoitzaren eginkizuna ezagutzeko aukera.</li> <li>- Arloka banatuak daude, honek informazioa bilatzeko erraztasuna ematen du.</li> <li>- Tratu txar motak definitu eta hauen adierazleak zein arrisku eta babes faktoreak azaltzen dira.</li> <li>- Larritasun mailaren arabera mailakatzen direlarik.</li> <li>- Kasuen aurrean hezkuntza arloko adituek jarraitu behar duten prtokoloa.</li> <li>- Eranskinetan, adingabearekin elkarrizketa burutzeko argibideak.</li> </ul>	<p><b>Aukerak.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxean gaian aditua den irakaslea izatea.</li> <li>- Gida ezagutzea eta kasuen aurrean jarraitu beharreko esku-hartzea ongi ezagutzea.</li> <li>- Departamentu ezberdinetako profesionalak elkar ezagutzea.</li> <li>- Elkarren artean protokoloa begiratzea eta bakoitzak haren zein bertze profesionalen eginkizunak argi izatea.</li> </ul>

### 3.3. Adituei egindako galdetegia eta emaitzak

Tratu txarren eta marrazkien analisiaren informazioa, baita Nafarroan tratu txarren aurrean jarduteko protokoloa kontutan harturik, Baztango bailarako departamentu ezberdinetako adituei galdetegi bat egin zaie, bereziki, Baztan Ikastolako irakasle eta hezitzaileei, Baztango Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko langileei, Elizondoko Foruzaingoko Komisarioari eta Osasun etxeko Gizarte Zerbitzuko langileari, hau erizainarekin harremanetan jarri delarik. Galdetegi honen helburu nagusia, arlo bakoitzeko profesionalak gaiarekiko daukaten ezagutza eta Baztan bailarako lan sarea ezagutzea da. Honetaz gain, departamentu bakoitzaren esku-hartzea eta zeregina ezagutu da.


Galdetegia 12 adituk erantzun dute, horietatik 8 irakasle, Haur Hezkuntzako hezitzaile bat, Foruzaingo bat, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko langile bat, Osasun zentruko Gizarte langilea eta Pediatra/Erizaina.

#### 3.3.1. Galdetegiaren lehen atala. Adituek gaiarekiko daukaten ezagutza

##### 1. Lanbidea

##### 3. Irudia

Labideak



##### 2. Babesgabetasuna nola definituko zenuke?

###### Erantzunak:

- Aquellas situaciones en las que la persona menor de edad no tiene cubiertas sus necesidades básicas y sufre daño o está en riesgo de sufrirlo.
- Egoera ahulean dagoen bat babes gabe dagoenean eta babes eskaini eta eman behar diotenak ez dira gai edo ez dute nahi babes eskaini.
- Egoera larri baten aurrean inolako laguntza ikusgarritasun eta babes ez izatea.

- Ez dakit.
- Ez dakit.
- Haur batek behar duen babes eta zaintza ez izatea.
- Haur batek bere ondoan daudenen edo bere eredu direnen babes falta izatea. Leku seguru batean ez egotea. Bizitzarako beharrezkoak ditugun oinarrizko zimentuak ez jasotzea (maitasuna, goxotasuna, arauak/limiteak, hezkuntza...egoki bat ematea).
- Heldu baten babesik ez duen norbait. Egoera zail batean noren gana hurbildu ez duen norbait.
- Norbait bere gogoz kontra arrisku egoera baten aitzinean jartzea.
- Pertsona baten eskubideak eta ongizate emozionala bermatua ez dagoenean.
- Haurra biluzik, babes gabe, bakarrik...hitz honek negargura sortzen dit

**3. Zer motatako babesgabetasun egoera topatu dituzu zure lanean? Edo zer motatako babesgabetasunak ezagutzen dituzu?**

**Erantzunak:**


- Gurasoek denbora gutxi izatea ikasleekin egoteko, lana dela edo bertze arrazoiengatik./ Umeek denbora gutxi gurasoekin egotea/ Haurrak txiki txikitatik gailu elektroniko edo digitalekin sobera denbora pasatzea/ Batzuetan behar duten orduak lo ez egitea/ Noizbait etxean bakarrik gelditzea egunean zehar batez ere/ Gurasoen arteko ezadostasunak eta istiluetan haurrak erabiltzea.
- Adibide bat errateagatik, familia eredu anitzak aipatuko nituzte. Hau da, heteronormatik ateratzen diren familia horien hurrekiko oraindik hutsuneak daude gure programazioetan adibidez.
- Sobre todo malos tratos a menores en su ámbito familiar. También situaciones de abandono dentro de familias desestructuradas.
- Ama jotzen duen aita baten presentzia, hurrekiko esku hartzea eta egoera horretan esku hartzen duten langileen arteko komunikazio falta. Paperik ez duten atzerritarren egoera, lanik gabeko familiak, haurdunaldian tratu txarrak jaso dituen ama eta semea.
- Axolagabekeria, hau da, gurasoek beren hurrei beharrezko atentzioa ez eskaintzea, garrantzirik ez ematea (batzutan gain karga bat izango balira bezala dituzte haurrak).
- Ez dut topatu.
- Leve/ moderado / grave.
- Ez dut topatu momentuz. Baina ezagutzen ditut baten batzuk. Ni ez nengoen lanean orduan.

- Babes arina eta larriak.
- Zorionez ez dut bizitu.
- Autoestima falta, gaizki erantzutearen beldurra.
- Tratu txarrak ( psikologiko naiz fisikoak ), egoera sozioekonomiko ahulean dauden pertsonak, bere gogoz kontra pertsona batekin egon behar duten pertsonenak.

#### 4. Zeintzuk dira tratu txar egoera baten detekzio unean eman beharreko urratsen ordena?

##### 4.Irudia

Detekzioan eman beharreko urratsak




#### 5. Behaketa egiterako unean zer hartu behar dugu kontuan?

##### 5.Irudia

Behaketan zer kontutan hartu

12 erantzun



- Adierazpenaren maiztasuna, nola eta non eman den / Frecuencia de la expresión, forma y lugar de la declara...
- Adierazpenaren maiztasuna, nola eta norekin eman den / Frecuencia de la...
- Adierazpenaren maiztasuna, non eta norekin eman den / Frecuencia de la...
- Adierazpenaren maiztasuna, non, nola eta norekin eman den / Frecuencia de...
- ez dakit




**6. Jakingo zenuke zer behatu tratu txarrak pairatzen dituen adingabe batengan? Zeintzuk diren adierazleak?**

**6.Irudia**

Adierazleen ezagutzak

12 erantzun




- Bai, jakingo nuke zeintzuk dire adierazleak / Sí, sabría cuáles son los indicadores
- Bai, jakingo nuke zer behatu, baina ez dakit arras ongi zeintzuk diren adierazleak / Sí, sabría qué observar,...
- Ez, ez nuke jakingo zer behatu eta ez ditut adierazleak ezagutzen / No, no s...
- adierazleak zeintzuk diren jakiteko nafarroako osasun zerbitzuko gidan oi...

**7. Jakinarazpena egiteko nahikoa da behaketan jasotakoa?**

**7.Irudia**

Behaketa jakinarazpena egiteko nahikoa da

12 erantzun




- Bai, nahikoa da / Sí, es suficiente
- Ez, informazio gehiago behar da / No, se necesita más información
- ez dakit erantzuna

**8. Irakaslea bazara erantzun. Behaketan jasotakoarekin zer egiten duzue?**

**8.Irudia**

Zer egin behaketako datuekin

9 erantzun




- Behaketan jasotakoa orri batean idatzi eta jakinarazpena egiten dut / Escribo lo observado en una hoja y realizo la not...
- Behaketan jasotakoa zuzendariari orri batean idatziata ematen diot, ondoren jakinarazpena egiteko / Le doy lo obs...
- Behaketan jasotakoa zuzendariari ahoz adierazten diot, ondoren jakinarazpen...
- Ez da eskolan detektatu eta aurrera eramán dudan egoerarik izan

**9. Zuen lanbidean jakinarazpen orria daukazu? Badakizue nondik eskuratzen ahal duzuen?**

**9.Irudia**

Lantokian daukaten jakinarazpen orria

12 erantzun



- Ez daukagu jakinarazpen orririk eta ez dakit nondik lortu daitekeen / No tene...
- Ez daukagu jakinarazpen orririk, baina badakit nondik lortu daitekeen / No te...
- Badaukagu jakinarazpen orria eta badakit nondik lortu daitekeen / Ya ten...
- Badaukagu jakinarazpen orria, baina...
- Badaukagu jakinarazpen orria eta guk...
- ez dakit
- Guk gure moduan, idatziz, jasotzen d...

**10. Nondik jaso dezakezu jakinarazpen orria? (Ez badakizu, ez erantzun).**

**Erantzunak:**


- Haurren babesgabetasun egoeretan detekzioa, jakinarazpena, balorazioa eta esku-hartzea egiteko prozeduraren II. Eskuliburua.
- Documento de notificación de profesionales a los Servicios Sociales de situaciones de posible desprotección de menores o el modelo de notificación que facilitan en la guía de actuación para el sistema sanitario.
- Ez dakit galdera hau gizarte zerbitzuko teknikariei zuzendua dagoen, baina guk, gizarte zerbitzuetan manuala dugu eta jakinarazpenaren inprimakia dugu.

**11. Zer jaso behar du jakinarazpen orriak? Erantzun bat baino gehiago aukeratu dezakezu.**

**10.Irudia**

Jakinarazpen orriak jaso beharrekoaren ezagutza

12 erantzun




**12. Nork bete dezake jakinarazpen orria?**

**11.Irudia**

Nork bete behar du jakinarazpena

12 erantzun




- Pertsona bakar batek / Una sola persona
- Pertsona bat baino gehiagok / Varias personas
- Soilik Gizarte Zerbitzuetako langile bakar batek / Sólo un/a trabajador/a d...
- Hezkuntza arloko langileek / Personal educativo
- ez dakit
- Egoerari buruz informazioa duen edon...

**13. Irakaslea bazara erantzun. Irakasleak babesgabetasun zentzuak antzeman dituen jakinarazpena bere kabuz egin dezake?**

**12.Irudia**

Irakasleak jakinarazpena bere kabuz egin dezakeen

8 erantzun




- Bai, bere kabuz egin dezake, baina beti ere zuzendariaren eta ikuskariaren gorespenarekin / Sí, puede hacerlo po...
- Ez, zuzendariaren gorespene beharrezkoa da / No, es necesario el elogio del director
- Bai, zuzendariaren gorespene ez izan harren, babesgabetasun egoeraren larritasuna kontutan hartuta bere kabu...
- ez dakit

**14. Irakasleak behin jakinarazpen orria osatuta, ze bertz profesional jakinarazi behar du babesgabetasun / tratu txar egoera baten susmoa dagoela?**

**13. Irudia**

Ze bertz profesional jakinarazi susmo egoera batean

12 erantzun




- Pediatrara / Peditra
- Foruzaingora / Policía Foral
- Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetara / Servicios Sociales de Base
- Bigarren Mailako Laguntzako Gizarte Zerbitzuetara / Servicios Sociales de...
- A cualquiera de ellos dado que suelen trabajar en "red"
- ez dakit
- seguiriamos la guía de actuación

**15. Errebelazio egoera baten aurrean, susmo egoeran jakinarazpena egin dugun profesional berdinarengana joko dugu?**

**14. Irudia**

Errebelazio egoera batean susmo egoeran jakinaraziko profesionalak jakinarazi bai edo ez

12 erantzun



**16. Jakinarazpena edo informazioa telefonoz transmititu daiteke?**

**15. Irudia**

Jakinarazpena telefonoz egin edo ez

12 erantzun



**17. Esku-hartze berdina ematen da susmo eta errebelazio egoeretan?**

**16. Irudia**

Esku-hartze berdina susmo eta errebelazio egoeran

12 erantzun



### 18. Aurreko galderaren erantzuna ezezkoa bada, zer aldatzen da? Zein da errebelazio eta susmo egoera batean ematen den esku-hartzearen aldea edo desberdintasuna?

#### Erantzunak:


- Errebelazioa bada zerbitzu guziak martxan jarriko dira eta jarraitu beharreko protokoloa jarraituko da.
- Susmo egoera batean, Gizarte Zerbitzuari jakinarazpena egingo zaio eta hortik behaketa bideratuko da, egoera zein den argitzeko.
- Bata susmoa da eta bertzean egiaztatuta dago.
- Alderdi gehiagoren parte hartzea beharrezkoa izanen da.
- Susmoak bakarrik badira behatzen jarraitu beharko dugu eta ziur gaudenean eskuhartu.

### 19. Babesgabetasun egoera baten aurrean, familiak zuen laguntza onartzen du?

#### 17. Irudia

Familiak laguntza onartzen duen

12 erantzun



### 20. Familiak laguntza onartzen ez badu, nola babesten duzue adingabea?

#### Erantzunak:


- Zerbitzu sozialen bitartez.
- Trasladamos el caso a servicios especializados, sobre todo al departamento competente del Gobierno de Navarra.
- Eskolako denbora kalitatezkoa izan dadin bermatuz.
- Con el trabajo en red y la ayuda de los demás profesionales.
- Adin ttikikoarekin harremana duten bertze profesionalen medioz.
- Alderdi desberdinen parte hartzearekin eta ez bada deus lortzen ba...adingabea babestuz...(kustodia kenduz...)badakit gogorra dela, baina familiak ez badu babesten horrelako neurriren bat beharrezkotzak ikusten dut.
- Gizarte zerbitzueri komunikatuz.

**21. Lanean egoera desberdinekin egingo duzue topo, indarkeria fisikoa, psikologikoa, axolagabekeria, sexu abusuak... egoera hauei aurre egiteko protokoloen laguntza daukazue?**

**18. Irudia**

Protokoloaren laguntza

12 erantzun



- Bai, egoera hauei aurre egiteko protokoloa daukagu / Sí, tenemos un protocolo para hacer frente a estas situaciones
- Ez, egoera hauei aurre egiteko protokolorik ez daukagu / No, no tenemos protocolo para hacer frente a estas situaciones
- Ez dakit
- egia erran ez dakit

**22. Aurreko galderaren erantzuna baiezkoa bada, aipatzen ahalko zenuen zein diren protokolo horiek? Nondik eskuratzen duzue protokoloa?**

**Erantzunak:**


- Nafar Gobernuako Gizarte ongizate zerbitzutik.
- Nafarroako Hezkuntza Departamentuko web orrian eskuragarri daude.
- Jazarpen egoeren aurrean, ikastolako Kiva taldea lanean hasten da eta bertze egoeretan tutorea eta zuzendaritzak egiten dute esku hartzea.
- Guía de actuación en las situaciones de Protección Infantil para el Sistema Sanitario en la Comunidad Foral de Navarra y también hay una guía para los servicios sociales.
- Adin ttikiko babeserako manuala (Gizarte zerbitzuak, osasuna eta hezkuntza).

**23. Marrazki batetik lortutako adierazleak froga baliagarria da jakinarazpena egiterako orduan?**

**19. Irudia**

Marrazkitik jasotako informazioa jakinarazpena egiteko baliagarria da edo ez

12 erantzun




- Bai, baliagarria da / Sí, es útil
- Ez, marrazki batetik lortutako adierazlea ez da froga gisa hartzen / No, el indicador obtenido de un dibujo no se considera como prueba
